

Goienkaria


EGUBAKOITZA • 2005.03.11

V. urtea • 191. zenbakia • DOAN BANATZEKO



EUSKARA

Emun kooperatibak bulegoa zabaldu du Andoainen /5



IMANOL MURUA / POLITIKARI OHIA

"Aznarren garaitik hona aldaketa egon da, baina bakea ez dut hain gertu ikusten" /7

Goienka2a

VII. Literatura Astea egingo du HUHEZIK hilaren 14tik 18ra

Kilometroak 2007 Bergaran ospatuko da, Aranzadik antolatuta

Gipuzkoako Ikastolen jaia, Kilometroak, Bergaran antolatuko dute 2007 urtean. Asteleheneko batzarrean erabaki zuen Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak Bergarako Aranzadi Ikastola izendatzea bi urte barruko Kilometroak antolatzeko. Datorren urtekoa Oiartzunen antolatuko dute. Horrenbestez, bi urteko epean, Debagoiengan antolatuko dute Kilometroak jaia. Aurten, jakina denez, Leintz aldean ospatuko da,

Arizmendi Ikastolak antolatuta. Batik bat, Aretxabaletan barrena igaroko da ibilbidea.

1991ko Kilometroak jaia ere Bergaran antolatu zuen Aranzadik. Orduan ez bezala, 2007. urtekoan ibilbide laua egin nahi dute eta, seguruen, trenbide zaharra erabiliko dute horretarako, Labe-garaietatik Osintxuraino. 1991koan San Martzial ermita eta Zurragan barrenetik igaro zen ibilbidea. /6

ARRASATE

Hilerrietan ez dute zerbitzurik emango jaiegunetan

Maiatzaren 1etik aurrera, San Kristobal hilerrian eta Arrasateko auzoetako hilerrietan ez dute zerbitzurik emango jaiegunetan. Hala erabaki du oraineko astean Udalak. Horrek esan nahi du ez dutela ez enterramendu ezta errausketarik ere egingo. Hori bai, hildakorik badago eta haren familiak hala nahi badu, Udala arduratuko da gorpua gordetzeaz. /6

ENPRESAK

Euskadiko Kutzaren irabaziak hazi egin ziren iaz, %12

Euskadiko Kutzak urteko batzarrara egin du gaur Arrasaten. Atzo, ostera, datuak eman zituzten eza-gutzera Juan Mari Otaegi presidentek eta Juan Jose Arrieta zuzendariak. Urte ona izan da 2004, baina ez onenetakoa. Aurreko urtearekiko, irabaziak %12 hazi dira. Azken lau urteotan, bestalde, 63 sukurtsal zabaldu dituzte, eta datozen lau urteotan ireki nahi dituzte beste 67. /4



ARGAZKI PRESS

'Migelon'-i ongietorria eta omenaldia, Bergaran

Mikel Zubimendi Migelon HBko legebiltzarkide ohiari ongietorria egin zioten Bergaran astelehenean. Sei urtez kartzelan egon ondoren, Frantziako Poliziak aske utzi zuen Port Boun, Frantzia eta Katalunia arteko mugan. Jaioterrira heldu eta hasierako ongietorria egin zioten Arrano tabernaren aurrealdean. Domekan omenaldia egingo diote Bergarako San Martin plazan, 19:00etan.

ASTEKO GAIA: KORRIKA Eguaztenean dator Korrika ibarrera

Hilaren 16an, eguaztena, arratsaldean iritsiko da Korrika Debagoienera, eta gauerdian irtengo da guretik, zortzi herri-tatik igaro ondoren. /2-3

14. korrika ni ere bail

MARTXOAK 16, EGUAZTENA

- 15:46 Udana
- 16:25 Oñati
- 17:20 Elorregi
- 17:55 Bergara
- 18:53 Elgeta
- 20:22 Kanpanzar
- 21:00 Arrasate
- 21:53 Aramaio
- 23:00 Aretxabaleta
- 23:18 Eskoriatza
- 00:00 Gatzaga

Astelehenean, txirrindularitza gehigarria

Ibarreko txirrindularitza taldeen gaineko informazioa emango du Asteleheneko Goienkaria-k zortzi orriko gehigarri berezian.



Makinak alokatu eta saltzen ditugu Eraikuntzarako eta obra publikorako

ALKIDEBA

Soluzioak errentan.

Maltzaga bidea - 20590 Soraluze
Tel.: 943 75 15 54 . Faxa: 943 75 00 31

Goitondo industrialdea, 3. pab. 11-2 partzela, 48269 Mallabia - Bizkaia
Tel.: 943 17 13 62 . Faxa: 943 17 14 56



Bainu altzari eta osagaiak
Hidromasaje kabinak • Manparak

BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate
943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

Eguaztenean, Korrika gurean

■ Laurak eta hogeita bostean iritsiko da Oñatira, eta gauerdian irtengo da ibarretik

■ Debagoieneko zortzi herri egun bakarrean zeharkatuko ditu aurten herri lasterketak

nolako ikasketak,
halako lana*

* Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako ikerketaren arabera, MONDRAGON UNIBERTSITATEan ikasitako %90,7ak bere ikasketekin bat datorren lanpostua lortzen du; eta gainera, batz bestea bi hilabeteren buruan.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

LEIRE KORTABARRIA

Aspaldiko partez, egun bakarrean iritsi eta igaroko da Debagoienetik Korrika herri lasterketa. Eguaztena, martxoak 16, izango da egun hori. Arratsaldeko laurak eta hogeita bost inguruan sartuko da Oñatira; Elorregiko bidegurutzean Bergarako bailarara joko du, eta Elgetatik ere pasatu ondoren, Kanpanzarrera iritsiko da zortziak eta laurdenean, eta bederatzietan Arrasatera. Handik Aramaiora jarraituko du, eta Aretxabaletara pasatuko da hamaiketan, Eskoriatzara hamar minutu geroago eta, eguaztena bukatzearekin bat, gauerdian, Leintz Gatzagara helduko da.

Antzuolatik ez da aurten Korrika pasatuko; bai, ordea, Korrika Txikia. Hori arratsaldean izango da. Hala ere, oraindik ez zegoen zehaztuta hilaren 16an edo 17an egingo duten. Izan ere, 16an egiten den lekuetan, Korrika nagusiaren parera izango da.

Debagoieneko AEK-ko antolatzaileen esanetan, "oso ordutegi egokia" da ahalik eta parte-hartze handiena lortzeko, nahiz eta Debagoienean jendeak beti egin izan duen Korrikarekin bat, baita gaueko ordu txikietan pasatu izan denean ere, orain dela bi edizio gertatu zen moduan.

KORRIKA KULTURALA

Korrika egun bakarrean etorri eta joango bada, Korrikaren inguru-

ruan antolatzen diren kultura ekintzak aste osoan izango ditugu. Herri guztietan dago ekintzaren bat. Aurten, Korrika Beka irabazi duen *Euskararen 7 Bektu Nagusiak* antzezlan nabarmenentzen dute antolatzaileek. Aitzpea Goenagak irabazi du beka, hark idatzitako antzezlan horrekin, eta Bergaran izango da ikuskizuna bihar, zapatua, Novedades aretoan, 22:00etan. Horretarako txartelak salgai daude 8 eurotan Pol-Pol, Arrano eta Ariznoa tabernetan.

Horrez gain, honako ekitaldiak izango dira: Eskoriatzan, hilaren 16an, ume, gazte eta helduendako ekintzak, arratsaldean; 20:30ean, afaria, eta azkenik, Korrika. Hilaren 19an, txotxongilo saioa izango da Huhezin.

Bestalde, Eskoriatzako Udalak jakinarazten du Guraso Eskolaren barne hilaren 16rako deitutako batzarra 15era, martitzena, aurreratu dutela. Kultura etxean izango da, 18:00etan.

Aretxabaletan kale-antzerkia izango da gaur, egubakoitza, 18:30ean; hilaren 16an, umeendako ekintzak, musika, albokabertso-poteoa eta afaria Basaben.

Arrasaten, gaur, egubakoitza, Coilbox eta Anger taldeen kontzertua izango da gaztetxean, 22:30ean; zapatu goizean, material salmenta Portaloian; eta hilaren 13an, *Euskara Sencilloaren Manifestua* antzezlan, Amaia antzokian, 19:30ean.

Bergaran, bihar, zapatua, euskal dantza saioa izango da Herri-

OMENDUAK

Euskaldun berriak eta Andolin Eguzkitza

Bi omendu daude aurtengo edizioan: batetik, euskaldun berriak, euskara ikasten erakutsi duten konpromisosa eskertzeko. Hortik *Ni ere bai!* aurtengo leloa.

Beste omendua da Andolin Eguzkitza euskaltzainazena (1953-2004). Haren omenezko keinu moduan, antolatzaileek proposatzen dute korrikalariak euskarazko liburu bat eramatea.

MUNDUAN BARRENA Internetez eta unitate didaktikoen bidez

Euskal Herritik kanpo ere zabaltzen da Korrika. Batetik, Internet bidez, *ziberlekukoa* munduan zehar ibili da. www.korrika.org webgunean dago parte hartzeko aukera.

Bestetik, unitate didaktikoak egin dituzte Korrikak eta ikastolek, eta aurten, berritasun moduan, munduko ia 200 euskal etxetara ere bidali dituzte.



Joan den edizioan bezala, aurten ere egunez iritsiko da gurera Korrika.

GOIENKARIA

Ordutegi proposa

Jende askok egingo du Korrika Debagoiengan; izan ere, oso ordu proposetan pasatuko da guretik”, diosku Ibai Redondo Korrika Debagoiengo koordinatzaileak. Aurreko edizioan bezala, aurten ere egun argiz iritsiko da Korrika gurera; eta irten ere, ez da gaueko ordu txikietan irtengo behintzat.

Aurreko edizioetan ez bezala, aurten Korrika Oñati aldetik sartuko da Debagoienera; aurreko bietan, Soraluez aldetik iritsi zitzaigun. Beste berezitasun bat da aurten egun bakarrean pasatuko dela ibarretik; bai 2003an, baita 2001ean ere, bi egunean bete zen ibilaldiaren zati hori.

Zaila izaten da Korrikak ibarreko herri guzti-guztiak hartzea, eta aurten ere bat kanpoan geratu da, Antzuola,

Ibilbidea Debagoiengan

LEKUA	ORDUA
Udana	15:46
Oñati	16:25
Elorregi	17:20
Bergara	17:55
Elgeta	18:53
Kanpanzar	20:22
Arrasate	21:00
Aramaio	21:53
Aretxabaleta	23:00
Eskoriatza	23:18
Leintz Gatzaga	00:00

hain zuzen. Aurreko edizioan ere ez zen Antzuolatik pasa, ezta Elgetatik ere.

Urtero egiten den beste ekintza bat ez da aldatuko: Korrika Txikia, hain zuzen. Hori, urtero bezala, arratsalde egingo dute herri guztieta-ko ikasleek.

IBAI REDONDO / IBARREKO KOORDINATZAILEA

“Diruz lagundu dutenei eskerrak ematen dizkiegu”

Zapatuan, hilak 12, Korrikako materiala saltzen ibiliko dira Arrasateko Portaloian

ko plazan; 16:30ean, umeendako jolasak; 19:00etan, triki-bertsopotea; 23:30ean, Ekin eta Ttakumpa taldeen kontzertua gazte txean; eta 16an, karaokea Herriko Plazan.

Oñatin, hilaren 16an bertan, Korrika pasa ondoren, umeendako ekintza bat izango da, *Kroketa Zoparen Haur Berbena* delako ikuskizuna, hain zuzen; eta helduendako, bertsopotea.

Elgetan, Pirritx eta Porrotxek *Patata, Patata!* emanaldia egingo dute hilaren 15ean, martitzena; hilaren 16an, Korrika Txikia, afaria eta bertsopotea eta soinu emanaldia izango dira. Bestetik, Elgetako batzordeak Korrika herritik pasa izan den aldi-tako argazkiekin panel bat ipiniko du eguaztenean.

Azkenik, Aramaion, hilaren 16an, triki-bertsopotea, bertsolari eta dantzarien emanaldia, txokolate jana... izango dira 19:00etan hasita.

“Jendea anima dadila eta parte har dezala ekitaldiotan”, horixe eskatzen dute Debagoiengo antolatzaileek. Izan ere, kontuan hartu behar da ekitaldi-tara joatea, batez ere ordaindu beharreko sarrera dutenentara, Korrikari laguntzeko beste modu bat dela.

Antolatzaileek eskatzen dute Korrika Kulturaleko ekintzetan ere parte hartzea

LAGUNTZEKO MODUAK

Izan ere, herri lasterketa horri finantza bultzadaxo bat emateko modu asko dago, eta datozen egunotan horretarako aukera dezente egongo da. Horietako bat da, antolatzaileek dioten moduan, ekitaldiarako txartelak erosi eta kultura ekitaldi batez gozatzeko. Beste bat da Korrikaren materiala erostea, eta horretan ibiliko dira AEK-koak bihar, zapatua, Arrasateko Portaloian. Korrika Laguntzaile txartela erosteko modua ere badago Arrasaten eta Bergaran. 12 euro da, eta horren bidez, Euskal Herri-

ko komertzio askotan hainbat abantaila lortzen dira. Horretarako argibide gehiago AEKn eskatu behar dira.

Baina, ekonomikoki, Korrikarekin bat egiteko modu garrantzitsuenetako bat da kilometroak erostea. Hori, norbanakoek baino gehiago, elkarrekin eta enpresek egiten dute. Aurten, kilometro bakoitza 320 euro kostatu da. Beti bezala, Debagoiengo taldeen erantzuna oso ona izan da. Arlo askotako taldeek erosi dituzte kilometroak: besteak beste, sindikatuak, dantza taldeak, euskara elkarrekin, ikastetxeak, giza taldeak eta plataformek eta enpresa eta kooperatibek (Goienak, adibidez, erosi du). Enpresen kasuan, batzuetan zuzendaritza batzordeak erosi dituzte kilometroak; beste kasu askotan, enpresetako langileek erosi dute.

Berdin diruz zein lasterketa eginez, antolatzaileek espero dute Debagoiengo orain arteko erantzun ona datorren eguaztenean berretsi egingo dela.


Herri batzordeek egingo dako lana koordinatzea eta Korrika Kulturaleko antolatzea izan dira Ibai Redondoren zeregin nagusiak.

Zelan antolatu eta koordinatu duzue Korrika ibarrean?

Korrika batzordeak antolatu ditugu herriz herri, eta lan handia egin dute; horregatik eskerrak ematen dizkiet. Eskertzekoa da baita euskara eta kultura elkarrekin, presoen aldeko taldeak, gazte asanbladak, Segik, emakume elkarrekin, ikastetxeak... emandako laguntza.

Zelan joan da kilometroen eta Korrika Laguntzaile txartelen salmenta?

Ondo, baina azkeneko esprinta falta da. Txartelak egin eta egin ari gara, eta asteburuan Arrasaten eta Bergaran egongo da horretarako aukera. Komertzioetatik ere pasa gara diru eta laguntza eske, eta erantzuna ona izan da. Dirulaguntzak



eman dituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkie AEK-k.

Korrika Kulturaleko barne, zein ekintza nabarmenduko zenituzke?

Asko egongo dira, baina batez ere bi antzezlan: *Euskararen 7 Bekatu Nagusiak*, Bergaran, eta *Euskara Sencilloaren Manifestua*, Arrasaten; eta, Elgetan, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia.

LAN ESKAINTZA: 4 UDALTZAIN

Aurkezteko epea: martxoaren 4tik 23ra arte (biak barne)

Oinarriak: Udaletxeko Pertsonal sailean jaso daitezke edo web orrian: www. arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila

Langile okupatuentzako prestakuntza finantziatuak %100-ean

- MS Project
- Web orrien diseinua
- Komunikazio teknikak
- Lidergoa
- Bileren zuzendaritza
- Stress-aren denbora eta kontrol kudeaketa
- Lan arriskuen prebentzioa
- Ingurugiro talkaren ebaluaketa
- Irakaskuntzako langintza osasuna (ahotsaren hezkuntza)

AKADEMIA

BASTIDA

Info: 943 79 35 33

formacioncontinuuabego@bastida.es



GOIATZ ARANA

Prensaurrekoa eskaini zuten martitzenean ibarreko Etxeratekoek, eskatzeko preso borrokaldiarekin bat egitea.

Etxeratek dei egin du 19an Fleuryra egingo den martxan parte hartzeko

Euskal preso politiko borrokaldiarekin bat egiten du Etxeratek

GOIATZ ARANA

Etxeratek bat egin du Euskal Preso Politiko Kolektiboa egiten ari den borrokaldiarekin, eta hilaren 19an Parisko Fleury espetxera egingo den martxan parte hartzeko dei egin dute bertako kideek.

Ibarreko preso politiko seni-tartekoek bat egin dute Euskal Preso Politiko Kolektiboak egiten diharduen borrokaldiarekin. Txandakako itxialdia egiten dihardute espetxe guztietan urtarilaren 4az geroztik. Hain justu

ere, azken txandan, martxoaren 5etik 15era bitartean, ibarreko honako preso hauek daude itxialdian: Gaizka Azkarate arrasatearra, Navalcarneron; Karmen Irizar eta Patxi Cabo antzuolarrak, Valladolid eta Martutenen; Luis Mari Azkargorta arrasatearra, Zaragozan; eta Marixol Iparagirre eskoriatzarra, Nantesen (Frantzia). Isolamendu politikoarekin bukatzeko eskatzea dute helburu.

Kolektiboak prozesu politikoan parte hartzeko bermeak nahi ditu eta, horretarako, beharrezkoa dela oinarrizko eskubidee-

kin batera eskubide politikoak ere onartzea esan du Etxeratek.

HILAREN 19AN, FLEURYRA

Presoei atxikimendua azaltzeaz bat, hilaren 19an Fleury-Merogisera egingo den martxa nazionalan parte hartzeko deia luzatu dute Etxerateko kideek. Parisko espetxe hartan hil zen iaz Oihane Errazkin preso. Autobusa martxoaren 18an, 19:30ean, aterako da Arrasateko Garibaitik. Txartelak Irati tabernan daude salgai, 10 eurotan ikasle eta langabeentzat eta 20 eurotan gainerakoentzat.

Debagoieneko erretiratuak haserre Aldundiarekin garraio publikoengatik

Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketan ez dute laguntzarik emango

IKER BARANDIARAN

Aldundiak laguntza eskatu die Gipuzkoako erretiratuak Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketan laguntzeko. Baina Debagoieneko erretiratuak ezetza eman diote, euren eskaerei erantzun ez dielako.

Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldun nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako erretiratuengana zuzendu da atletismo txapelketa hori antolatzeko laguntza eske.

Otsailaren 14an, Debagoieneko erretiratuak Txabarriri eta Gizarte Saileko Esther Larrañagari posta bidez jakinarazi zieten ez dutela lagunduko.

Debagoieneko erretiratuak dira garraio publikoan deskon-

turik ez daukaten gipuzkoar bakarrak. Horregatik oso haserre daude, eta orain dela bi urte Aldundira bidali zuten horren

gaineko kexa. Orain arte erantzunik jaso ez dutenez, itxarotaz aspertu direla diote eta Aldundiari aurre egitea erabaki dute.

Euskadiko Kutxak irabazi du 2003an baino %12 gehiago

Azken lau urteotan 63 sukurtsal berri zabaldu dituzte

ENEKO AZKARATE

Euskadiko Kutxak urteko batzar orokorra egin du gaur, egubakoitza, Arrasaten. Atzo, ostera, datuak eman zituzten ezagutzera prentsaren aurrean Juan Mari Otaegi presidentek eta Juan Jose Arrieta zuzendariak.

Urte ona izan da 2004a, baina ez onenetakoa. Hala, aurreko urtearekin alderatuta irabaziak %12 hazi dira. Negozio zifretan, dinamismoa nagusitu da eta horren ondorioz bezeroen baliabideak %20,9 hazi dira; etxeko ekonomiarendako kredituak, %18,5, eta enpresei zuzendutakoak, %15.

Horrez gain, etxebizitzaren promozioa nabarmen bultzatu dute eta urtean eman diren etxebizitzak eta eraikitzen hasi diren artean finantzatu dituzte 7.604. Horieta %36 babes ofizialekoak.

Bestalde, bezero kopuruen marka hautsi egin dute; gaur egun Euskadiko Kutxak ditu 1.065.000 bezero. Gizarte konpromisoetara bideratu dute aurten %30.

2001-2004 aldiko balantzea ere izan da. Hala, zabaltzeko estrategiaren barruan, 63 sukurtsal berri ireki dituzte, horietatik 54 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo. Besteak beste, Zaragozan, Zamoran, Salaman-can eta Kantabrian.

ETORKIZUNERAKO ASMOAK

2005-2008 epealdian, aurreko lau urteko aldian baino irabazi handiagoak edukitzea espero dute, hain justu ere %47 gehiago. Negozioak dinamismoari eutsiko dio eta %44 haziko da. Merkatu berriaren zabalkundeari dagokionez, aurrez ikusi dute 67 sukurtsal berri zabaltzea, eta, hala, guztira 405 izango dituzte.



Ezker Abertzale zabal eta zibilaz jardun dute

Ezker Abertzale zibil eta zabalaren gainean jardun zuten eguaztenean Oñatin Joxe Iriarte Bikilak eta Mikel Irizarrek, Aralar alderdiak gonbidatuta. Biek ala biek nabarmendu zuten etorkizuneko Ezker Abertzalearen ardatz nagusia bere izaera zibil eta zabala izango zela. Mikel Irizar iritzi emaileak adierazi zuen borroka armatua ez dela bidea eta Bikilak, ostera, garrantzia eman zion ezkerreko alderdien arteko lankidetzari eta errespetuari, izan abertzale edo ez izan. /GOIENKARIA

0000 km
Mondeo C-Max Fiesta

Haxe da aukera!

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak irauteko eginak

SEIN
gruportaldea

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

OÑATI
Tel.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE
Tel.: 943 71 24 25
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 20 04

Martin Ugalde Parkean bulegoa zabaldu du Emun kooperatibak

Donostialdean gero eta bezero gehiago dutela eta, Andoainen bulegoa ireki dute

MARIA AGIRRE

Atzo izan zen inaugurazio ekitaldia, Martin Ugalde Parkean. Donostia, Oarso eta Buruntzaldeko herrietan gero eta bezero gehiago du EMUN kooperatibak, eta horregatik, eskualde horietatik gertu bulegoa irekitzea erabaki dute.

Dagoeneko zortzi lagun ari dira lanean Emun Kooperatibak Martin Ugalde Parkean, Andoainen, ireki duen bulegoan. Atzo, baina, administrazio, euskara eta lan esparruetako hainbat ordezkari hurbildu ziren bulegoaren inaugurazio ekitaldira. Era horretan, Emunen berri eman eta eragileak inplikatu nahi izan zituzten: sindikatu, enpresaburuen elkarte eta kooperatibak, besteak beste. Aurrez egun ugari ikusi ziren atzo Andoainen: Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia, Argia aldizkariko zuzendari Xabier Letona eta Berria-ko Martxelo Otamendi, ELAko Leire Txakartegi, CCOOko Jesus Uzkudun eta, Diputazioa ordezkatzuz, Xabier Huitzi, euskararen normalizatorako zuzendaria.

DONOSTIALDEAN HEDATU

Juan Luis Arexolaleiba Emuneko marketing zuzendariak esan bezala, bezeroei zerbitzu hobea emateko asmoarekin zabaldu dute Andoaingo bulegoa. "Donostia, Oarso eta Buruntzaldean gero eta bezero gehiago dugu, eta ordezkari gertu dutela ikustea garrantzitsua da. Arrasate urrutia geratzen da, ez bakarrik bezeroendako, baita langile batzuek ere". Izan ere, Emuneko langile batzuk Donostialdean bizi dira, eta



EMUN kooperatibak Arrasaten du egoitza nagusia, baina orain, Andoainen ere ireki dute bulegoa. Zortzi lagunek egiten dute lan.

horiendako ere errazagoa da Andoaingo bulegoan lan egitea. Baina, era berean, lan arlorako euskalduntze planak egiten dituen Emun kooperatibaren jardura ezagutzera eman nahi dute. Eta, bide batez, eragile izan daitezkeenak inplikatu: sindikatu eta enpresaburuen elkarteak, besteak beste.

Gaur egun Donostia, Oiartzun eta Usurbilgo hainbat enpresa eta erakundetan euskara planak garatzen ari da Emun, eta Buruntzaldean udalekin harremanetan ari dira. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbilek osatzen dute Buruntzaldea, eta

Donostia, Oiartzun eta Usurbilgo hainbat enpresatan euskara planak garatzen ari dira

herri horietako udalekin harremanetan ari dira, dirulaguntzak eman ditzaten enpresetan euskara planak abian jartzeko. "Azken urteetan, euskara beste esparru batzuetan garatzeko dirulaguntza eman dute udalek, baina enpresetan ere euskara

planak bultzatzeko dirulaguntzak behar dira. Horregatik, udal horiekin hartu-emanetan ari gara, dirulaguntzak eman ditzaten", azaldu du Arexolaleiba.

EUSKAL HERRIKO ENPRESA

Emun kooperatibak 2005-2008rako egindako plan estrategikoan jasota dator Euskal Herriko enpresa izateko asmoa. "Euskara planekin jarraitu, eta Euskal Herri osoan lan egingo duen enpresa bihurtzea dira helburu nagusiak. Era horretan, Nafarroari zerbitzua emateko, Atarrabian bulego txiki bat ireki dugu". Andoaingoa, beraz, ez da azkena izango.

LABUR

Etxeetako olioia 19an batuko dute Bergara eta Oñatin


Etxeetako olioia eta hondakin arriskutsuak batzen dituen Puntu Berde Mugikorra zerbitzuan egun aldaketa bat egon da Bergara eta Oñatiko udalerriei dagokienez. Bergaran eta Oñatin berez olio bilketa eguna martxoaren 26an egokituko litzateke. Aste Santua izanik, ordea, bilketa eguna martxoaren 19an egingo dute.

Argentinako eta Kubako egoeraren gaineko hitzaldia

Arexabaletako Hiruatx gobernuz kanpoko erakundeak kafe tertulia antolatu du Kubako eta Argentinako bi lagunekin. Odalis Rey Neira kubatarra eta Rene Heraldo Irurtzun argentinarrak haien herrialdeen egoeraren gainean jardungo dute. Martitzenean izango da, 19:00etan, Arexabaletako Arizmendi Ikastolaren Basabeazpi gunean, Jolastoki aretoan.

Herri txiroetako egitasmoen berri Monterronen

Mundukideren truke programaren bitartez gurera hurbildu diren garapen bidean dauden herrialdeetako ordezkariak hitzaldia eskainiko dute astelehenean Arrasaten. 19:00etan izango da, Monterronen. Mexiko, Nikaragua, Kuba eta Hondurasko ordezkariak garatu dituzten egitasmoen esperientziak kontatuko dituzte. Ekitaldi hori ere Harremanek antolatu du.




4x4

aukera zabalena

**Saltzeko eta erosteko
Nahi duzun modeloa ez badaukagu,
bilatu egingo dizugu**


**la berriak eta bigarren eskukoak
(bost urte baino gutxiagokoak)**



ZABALDU BERRIA!

4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net



ANTZUOLA

Jose Ramon Agirre 'Marron'-ek Patagoniako bidaia kontatuko du

Datorren asteko eguenean, hilak 17, urteko batzar orokorra egingo du Arro-la mendizale elkarteak, 19:00etan, Olanan etxean. Ondoren, 19:30ean, Jose Ramon Agirre Marron-ek Patagoniarako bidaia kontatuko du eta dokumentala eskainiko dute.

ZINE FORUMA

Gaur, egubakoitza, zine foruma izango dugu, 21:00etan, Olanan; ondoren, berriketaldia egingo dute. Ermuko Emakumearen Sustapenerako arduradun Maria Asun Ramos-ek parte hartuko du. /A.I.

ARAMAIO

Presoen senideei dirulaguntza ematearren epaitu egingo dute Udala

Datorren martitzen goizean du epaiketa Aramaioko Udalak, Gasteizko Auzitegi Probintzian. 2003an presoen senideei dirulaguntza ematearren epaituko dute. Alkateak jakinarazi digu oraindik zehaztu barik dituztela defentsaren nondik norakoak.

HIRUGARREN EPAIKETA

Hirugarren aldia da Aramaioko Udala epaitzen dutela mota horretako arrazoekin. Presoekin lotutako pankarta batengatik ere epaitu zuten; baita *Berria* egunkariari dirulaguntza ematearren ere. /U.M.

ELGETA

Aralarrek Udalaren funtzionamendua hobetzeko mozioa aurkeztu du

Mozioak dio gobernuko alderdiak izango direla etxegile, erakunde eta teknikariek bileretan; gaiak adostuko direla udalbatzarraren aurretik; mozioak erregistroan sartu eta hilabete baino lehen eztabaidatuko direla; aurrekontuak urtea amaitu aurretik onartuko direla; agintaldirako plangintza ekonomikoa egingo dela; eta hilero zinegotziek batzarra egingo dutela. Gaineratu dute mozioa udalbatzarrera eraman bitartean ez direla gobernu batzordean izango. /I.A.



BERGARA

Aranzadi izendatu dute 2007ko Kilometroak antolatzeko

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak Bergarako Aranzadi Ikastola izendatu du 2007. urteko Kilometroak antolatzeko. Astelehenean bertan Bergara izendatzea erabaki zuen Ikastolen Elkarteak. 2006ko Kilometroetako jaia Oiartzungo Haurtzaro Ikastolak antolatuko du. Era berean, 2007. urtekorako Aranzadi Ikastola izendatu zuten. Beraz, hamasei urte geroago Kilometroak jaia izango du berriz Bergaran. 1991ko urriaren 6an ospatu zen lehenbiziko aldiz, eta milaka lagun hurbildu ziren egun hartan Bergarara. 2007rako ibilbide laua prestatu nahi dutela adierazi digu Patricia Urrutia Aranzadiko zuzendariak. Baliteke lehengo trenbide zaharretik egitea ibilbidea, Labegaraletatik hasi eta Osintxuraino. /E.M.

ARRASATE

Arrasateko hilerrietan ez dute zerbitzurik emango jaiegunetan

Datorren maiatzaren letik aurrera, San Kristobal hilerrian eta Arrasateko auzoetako hilerrietan ez dute zerbitzurik emango. Hala erabaki du oraingo astean Udalak. Horrek esan nahi du ez dutela ez enterramendu ezta errausketarik ere egingo. Hori bai, hildakorik badago eta haren familiak hala nahi badu, Udala arduratuko da gorpua gordetzeaz, eta, beharrezkoa denean, erre-frigeratuta kontserbatuko du. Amaia Arana Zerbitzu Saileko udal teknikariak argitu digu hobeto: "Hileta-elizkizuna zapatuan edo domekan egiten badute, haren ostean ez da enterramendurik eta errausketarik izango, ez San Kristobalen, ezta Arrasateko gainerako hilerrietan ere. Baina familiak hala nahi badu, hildakoaren gorpua berriro etxera eraman beharrean, Udala egingo da haren kargu eta San Kristobal hilerrian gordeko dugu, enterratu edo

erraustu gabe". Teknikariak gaineratu digu zerbitzu horrek ez duela inolako kosturik izango familiarendako.

BISITETAN-ETA, ERAGINIK EZ

Bestalde, udal teknikariak argi utzi du erabaki horrek ez duela eraginik izango hilerrien bestelako erabileretan. Hau da, domekan-eta zerbitzurik eman ez arren, hilerriak zabalik izango direla, herritarrek bisitak egin ditzaten. San Kristobal hilerria egun osoan dago zabalik: 08:30etik 19:00etara. Beilatokia, berriz, 08:30etik 20:30era zabaltzen dute. /U.M.

Zertzelada

Gipuzkoako 15 herritako ordezkariekin izan ostean hartu du erabakia Udalak. Ikusi du herri gehienetako hilerrietan ez dutela zerbitzurik ematen

OÑATI

Markesina berriak jarri dituzte Olaa eta San Lorentzo auzoetan

Olaa eta San Lorentzo auzoetako marquesina zaharrak kendu eta berriak jarri dituzte, eserlekuak ere badituztenak. Zaharrak baino atzerago jarri dituzte berriak. San Lorentzo auzoko ere, lehengoa baino barrurago jarri dute; autobusa hartu behar dutenek toki gehiago izango dute horrela. Markesi-

na berriak sartzen dira bi auzo horietarako udalek onartutako irisgarritasun planaren barruan, espaloien egokitze eta zebrabide eta semaforo berriekin batera. Bestalde, Debagoieneko tranbiaren proiektuaren planoetan geltoki bat ikusten da San Lorentzo auzoko markesinen inguruan. /O.E.



Lehenago baino barrurago daude marquesina berriak.

ARETXABALETA

Saharako lau ume oporretan etor daitezten, familiak behar ditu Udalak

Saharako lau ume ekartzeko laguntza ematea erabaki du Aretxabaletako Udalak. Oporrak bakean programaren bitartez eta Nubi elkartearen laguntzarekin hartu du erabakia, eta udako oporraldia pasatuko dute gurean. Orain, baina, ume horiek etxetan hartuko dituzten familiak behar ditu, eta herritarrei deialdia egiten die anima daitezten. Izena emateko epea martxoan bukatuko da, eta argibide gehiago gura izanez gero Udaleko Ongizate Sailera edo Nubi elkartera egin behar da dei: 685 72 48 16. /M.A.

ESKORIATZA

Martxoaren 17an Zuhaitzaren Eguna ospatuko dute Eskoriatzan

Martxoaren 17an, eguena, Zuhaitz Eguna ospatuko dute Eskoriatzan. Egun horretarako hainbat ekintza antolatu dituzte.

09:30ean, Arizmendi ikastetxearen Almen guneko eta Luis Ezeiza ikastetxeeko ikasleek gaztainondoak, urkiak eta lizarrak landatuko dituzte Torrebasoko lurretan.

Ondoren, 12:00etan, Gernikako zuhaitzaren kimu bat landatuko dute Ibarraundi jauregi kanpoan. Landatzean esku hartuko dute ikastetxeetako ikasleek eta Udaleko ordezkariak. /Z.V.M.

GATZAGA

Asteburu honetan eskiatzera joango dira herriko Guraso Elkarteak

Leintz Gatzagako Guraso Elkarteak lagunak Candanchu aldera joango dira asteburuan eskiatzera. Hogei bat lagun animatu dira azkenean elurretara. Batzuk gaur irtengo dira eta beste batzuek bihar arte itxaron beharko dute bidaia egiteko.

Aurreko astean arazoak izan zituzten hartuta zuten ostatuarekin, ikuskapen baten ondorioz itxi egin baitzuten tokia. Baina dagoeneko konpondu dute arazoa eta elurretako kirola egiteko desiratzen daudenak askeko dira hala. /Z.V.M.

Gipuzkoako Alkatea liburua idatzi du Imanol Muruari buruz Joan Mari Torrealdaik. Aste honetan, biak egon dira liburua aurkezten Arrasateko kultur etxean. Imanolek berak inauguratu zuen, gainera, Monterron jauregia.

OIHANA ELORTZA

Gipuzkoako Alkatea. Titulu handia da hori, e?

Bai, egia esan, gehiegikeria iruditzen zait niri ere; gainera, zer esango dute gainerako alkate guztiak? Gipuzkoako diputatu nagusia izan nintzen garaian kazetari batek titulu hori erabili zuen nitaz idatzi zuenean eta orain Joan Mari Torrealdairenekin ere batzuek esan diote nik diputatu moduan baino gehiago funtzionatzen nuela alkate bezala, eta handik ateratu zuen liburuaren izenburua.

Gustatu zaizu zuri?

Hark jarri aurretik galdetu egin zidan, eta baietz erantzun nion, jartzeko horixe horrela ikusten bazuen. Liburuarekin oso gustura gelditu naiz. Ilusio handia egin dit.

Dena jasotzen du liburua?

Nire bizitzako pasadizo gehienak jasotzen ditu, bai, baina ez denak. Detalle guztiak kontatuz gero, gainera, askoz potoloagoa aterako litzateke; adibidez, Guardia Zibilarekin izandako liskarrak, eta hasierako urteetan udaletxean izandako abentura guztiak kontatuz gero.

Soldaduskari ez esan zeniolako egin dute liburua.

Soldadutzari intsumiso egin nintzen, bai, eta gaitasun gabetu egin ninduten edozein kargu publiko hartzeko. Alderdiari, EAri, neurrigabea iruditu zitzaion sententzia hori eta orduan erabaki zuen liburu batean jasotzea nik egindako lana. Hala ere, liburu labur bat aterako zela pentsatzen nuen, eta sorpresa hartu dut Joan Mariren lan mardula ikusita.

Inoiz damutu zaizu erabaki hori hartzea?

Ez, berriz ere hartuko nuke hartu behar izanez gero. Zarauzko alkatetzarako aurkeztu nintzenean, gure hauteskunde programan zegoen intsumisioaren alde egitea, eta garaia etorri zenean, programan jasotakoa aplikatu genuen osoko bilkuran. Gero niri leporatu zidaten egindakoa, baina bete egin genuen aurretik agindutakoa.


Pixka bat harrigarria izan zen, niri egin zidatelako besteei egin ez zieten: bi urteko gaitasun gabetzea eta urtebeteko isuna; eman daitekeen zigorrak handiena. Orain, Atutxa auzian, adibidez, esaten dute bi urterako gaitasun gabe dezaketela; bai, ni gaitasun gabetu egin ninduten.

Bost zatitan banatuta dago liburua, kronologikoki ordenatua.

Bai, baina 200. orria irakurri nahi baduzu, adibidez, ez duzu aurreko guztiak irakurri beharrik. Umetako kontuekin, eskolakoekin, hasten da eta hortik aurrera politikan egindako garai ezberdinak jasotzen ditu, bai alkate izandako sasoiak baita Diputazioan egindako urteak ere. Guztira, 50 lagun baino gehiago elkarrizketatu ditu Joan Mari Torrealdaik, eta, horiek esandakoaz gain, niri egindako elkarrizketa bat ere badakar.

Diozu Leitzarango autobiaren garaia izan dela diputatu nagusi izan zinen urteetako unerik zailena.

Dudarik gabe. Aurretik ere, EAJ eta EA zatitu ziren garaia ez zen batere erra-



OIHANA ELORTZA

Imanol Murua

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSI OHIA

“Aznarren garaitik hona aldaketa egon da, baina bakea ez dut oraindik horren gertu ikusten”

LEITZARANGO AUTOBIA

“Gipuzkoako diputatu nagusi nintzela Leitzarango autobiarekin bizi izan nituen garai zailenak; ordu guztiak kendu zizkidan eta ez nuen denborarik izan gustuko gauzak egiteko”

APIRILEKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

“Zaila da pronostikoa egitea, baina arazo bat dago: Batasuna legez kanpo dago, eta parte hartzen uzten ez badiote, defizita izango dute apirileko hauteskundeak”

za eta gozoa izan niretako, baina autobiarena zaila izan zen, bai. Egia esan, ez dut detalle askorekin kontatu eta ez dut izenik jarri, baina uste dut ulertu nahi duenak ulertzeko moduan idatzi dudala.

Garai hartan hiruzpalau urte oso txarrak pasatu nituen: denak mehatxatuta geunden eta gizartearen zatiketa gertatu zen. Horrez gain, diputatu nagusia izan aurretik Kulturako diputatua izan nintzen ni eta banituen ideia batzuk diputatu nagusiak bultzatzen zituzkeenak. Baina kargu

horretan nengoela, autobiaren arazoak ez zidan denborarik eman gustatzen zaizkidan beste gauza batzuetan ezer egiteko, kultura arloan, adibidez, ordu guztiak Leitzarango autobiak kendu zizkidan eta.

Gaurko alkate lanak eta orduko alkatearenak berdinak dira?

Nik biak probatu ditut. Garai batean dena egiteko zegoen, askoz baliabide gutxiago zeuden, gainera. Orduan borondatez egiten genuen dena, ordu pila bat sartzen genituen eta ez genuen soldatarik. Esango nuke

garai hura zela amateurren eta oraingoa profesionalena. Egun askoz jende gehiago dago lanean udaletan eta baliabide asko daude. Orduan ez zegoen ezer eta dena egin behar izan genuen, baina jendearen onarpena askoz hobea zen. Orain jendeak lehen baino askoz gehiago eskatzen du.

Harreman ona duzu oraindik Deba-goieneko lehengo alkateekin: Bergarako Jose Luis Elkorok, Arrasateko Jose Antonio Altuna Txatillo...?

Bai, bai. Garai hura oso gogoan dautkat, oso garrantzitsua izan zen. Bergarako Taldea esaten zitzaion talde hari, baina eskualdeko alkate guztiak zeuden. Gu Zarauztik etorri ginen taldekoengana, lehenedik ere, ikastolen alde batera ibili ginen lanean eta ezagutzen genituen. Harrezkero askotan bildu gara eta orain ere kazetari bat doktore tesi bat egiten ari da garai hartaz, eta elkartzeko gara, bai. Afariak ere egin izan ditugu.

Jose Luis Elkorok eta biok geure eztabaidak eta desadostasunak izan genituen Leitzarango autobiaren inguruan, baina gure arteko harremana ez da inoiz apurtu, lagunak gara oraindik ere.

Nola ikusten dituzu datorren apirilean egingo dituzten Legebiltzar-rako hauteskundeak?

Nahiko zaila da pronostikoa botatzea. Uste dut EAJ-EA koalizioak nahiko emaitza onak aterako dituela, baina arazo bat dago: Batasuna legez kanpo dagoela. Parte hartzen uzten ez badiote, defizita geldituko da, eta alde horretatik gaizki ikusten ditut. Askoz egokiago izango litzateke alderdi guztiak parte hartzeko eskubidea izatea. Bestalde, parte hartzen uzten ez badiote, protestak eta iskanbilak izango dira eta betiko giro txarra sortuko da.

Ondo iruditzen zaizu EAJ eta EA koalizioan aurkeztea?

Bai. Bi alderdiak ulertzen ditut. Uler-tzen dut EA pixka bat difuminatuta geldituko dela koalizioaren barruan. Komunikabideetan ere EAJ bakarrik agertuko da gehienetan. Aldiz, emaitza aldetik uste dut abertzaleak elkartzea ona dela.

Bakea sekula baino gertuago ikusten duzu?

Ez naiz horren baikorra, ez. Dudarik ez dago Aznarren garaitik hona aldaketa egon dela, baina sakonean Madrilgo Parlamentuan esandako hitzek itxaropen handirik ez dute ematen, nahiz eta *talante* onekoak izan. Egia da ere hauteskunde kanpainen gaudela eta oraingo deklarazioak hutsean gelditzen direla gero batzuetan.

Hasierako alkateen garaian ere aurretik hasten zen kanpaina ala epe ofiziala errespetatzen zenuten?

Askoz gehiago errespetatzen zen, bai, baina akaso izango da orduan ez genuelako gaur besteko baliabiderik. Baina ezin dira konparatu duela 25-26 urteko lan egiteko modua eta oraingoa. Arazoak, ordea, bai. Lehendabiziko osoko bilkuran ez dakit zenbat mozio ziren, baina presoen gaia, amnistia, Autonomia Estatutua, Lemoiz eta egun ere oraindik arazo diren gaiak eztabaidatu genituen.

Euskaldunon Egunkaria auzia gertutik bizi duzu. Nola?

Semea hantxe zebilen kazetari, bai. Euskal kulturari, euskarari eta Euskal Herriari sartu dioten labankada izan da. Irakurri dut auto famatua, eta legelari ez izan arren, argi ikusten da oinarri juridikorik ez dagoela. Euskal kulturaren aurkako auzi politikoa da.

Kostan ere izan duzue elurra aurtengo neguan, e?

Elurra eta hotza. Luze doa aurtengo negua. Txalupa txiki bat dut eta arrantzaz asko disfrutatzen dut, baina azken hilabete honetan ez naiz itsasora joan, hotz handia egiten dut eta.

Gutunak

Arrasateko Santamasak eta Olentzero: Udalaren eskuetan?

Aurten beteko dira 30 urte Arrasaten herriko hainbat koadrilak, auzoetako batzordeetako partaideak eta kultur taldeetako kideak Santamas jaia berreskuratu zutenetik. Denbora honetan, jaia, programazioari eta jendearen parte-hartzeari dagokionez, haziz joan da etengabe. Santamas Komisiñuek, kultur taldeekin elkarlanean eta Udalaren laguntzarekin, duela gutxi arte, herriaren eta herriko taldeen parte-hartze aktiboa bultzatu dute Santamasetan, izaera herrikoia duen jaia sustraituz.

2003. urtean Santamas Komisiñuek beti bezala Udalarengana jo zuen, Santamas jaia antolatzeke bere burua eskaintzera. Hasieran Udalak onartu zuen, baina azaroaren bukaera aldera jaiaren antolaketa inguruko baldintzak aldatu zituen, beraien interesen arabera. Azkenean Udalak berak antolatu zuen jaia.

2004. urtean zehar, desadostasunaren ondorioz, Komisiñuek ordura arte garranturiko jarduera eredu jasotzen zuen hitzarmen zirriborroa aurkeztu zien herriko kultur taldeei beraiekin batera lantzeko. Santamas egunaren eta Olentzeroren jaietarako eredu parte-hartzailea egonkortzeko adostu zen hitzarmena eta Udalarari bidali zitzaion Uztailean. Urria arte ez genuen jakin ez zutela hitzarmen hura ontzat ematen. Geroago, herriko kultur taldeek bultzatuta, hainbat bilera egin ziren udaletxean. Horietan Udalak ez zuen borondaterik agertu gauzak adosteko: ez hitzarmenaren inguruan ez eta herriko taldeen iritzia aintzakotzat hartzeko orduan ere. Beraien proposamena hurrengo zen: "Egin jaia guk jarritako baldintzetan eta Otsailean hitz egingo dugu".

Prozesu honetan garbi ikusi da Udalak bigarren urtez jarraian jaia instituzionalizatu nahi duela. Horren aurrean, jai herrikoiak aldarrikatzeko eta Udalak jaiak antolatzeke orduan herri ekimena onartu eta errespetatu zezan, abenduaren 18ko jai herrikoia antolatu genuen hainbat kultur taldek eta Komisiñuek, zentzu positiboan.

2004ko Santamas eta Olentzero jaien inguruan gure balorazioa honakoa da:

- Abenduaren 18ko jai herrikoia: Denbora gutxian kultur taldeek eta komisiñuek antolaturiko jai parte-hartzailea izan zen, giro ezin hobean ospatu zena: herritar ugari baserritar jantzita, eskal dantzak, txistorra eta sagardoa, txerrikume zozketa, sekulako kale giroa egun osoan zehar... Arrasateko kultur taldeen eta koadrilen implikazioak jaiari berebiziko indarra eman zion. Dantzari, trikitalari, txistulari, txalapartari, artisauek eta komisiñuek bakoitzak bere jardunarekin eta gazteek koadrilen arteko olinpiada mundialekin giro ahaztezina eman zioten egunari, agerian utziz diruaz gain, beharrezkoak direla herritarren gooa eta parte-hartze aktiboa jaiak antolatzeke.

- Santamas eguneko jai eguna: Iazko edizioaren ereduaren konstatazioa izan zen, azoka, erakusketak lehiaketak eta

musika betiko mailan, pilota partiduan iaz bezala ikusle gutxiarekin eta berrikuntza moduan, antxoan (?) pintxo lehiaketa, txerri erreketak eta harri zultzaileak izan ziren. Aldiz, txerri dantza zein larrain dantza ez ziren dantzatu, diena ez zen egon eta baserritar jantzita jende gutxi ibili zen. Baserritar janztearena folklorea baino haratago doan gauza da, jaiaren parte hartzeke modua da eta antolatzaileek ez dute aspektu hau bultzatu, ezta beraiekin erabili ere. Gainera, nahiz eta Komisiñuek eta kultur taldeen elkarlanarekin antolatzen ziren jaien aurrekontua baino dezente handiagoa izan den aurtengoa (2003an bezala), egitarautik ekintza ugari desagertu egin dira: Dantza solte txapelketa, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta baserriaren inguruko hitzaldiak, umeentzako ikuskizunak, musika kontzertuak, baserrien lan tresnen erakusketa, 650 pertsonatik gora biltzen zituen bazkari herrikoia, plazako txotx gunea, txerri dantza eta larrain dantza. Oro har, ikusle izateke prestatuturiko egitaraua izan da: eskaparatearen kultura, parte-hartzearen kulturen kaltetan.

- Olentzero: Euskaldunen ohiturak berreskuratzeko bidean kultur taldeek eta komisiñuek egindako lan handiaren isla izan da orain arte Olentzeroren eszenifikazioa: antolaketa, parte hartzea, musika, dantzak, ibilaldia, auzoetako bisitak, plazako ekitaldia... Horregatik, aurten kezka handiz bizi izan dugu Udalak bere kabuz egin duen Olentzeroren eszenifikazioa. Egundoko egitaraua izateke arratsaldeko bi ordukoa izatera pasatu da. Txoronpio eta Txorontzia ez dira irten umeen gutunak jasotzera, (herri honetan ez al dago artxibategi historikorik?) Egurdi partean auzoetako haurren parte-hartzea desagertarazi da, ibilaldian musika eta plazan dantzak falta izan dira, antolakuntza eza nabaria izan da, zentzu liturgikoa eman zaio eta gainera, haurrak ezin izan dira euskaraz erlaxionatu Olentzerorekin: begirune eskasa "gure arteko talde sentsibleenarekiko" eta Arrasateko oroimen historikoarekiko.

Balorazio orokor gisa, uste dugu, herrian gauzak antolatzeke ekimen kontsolidatuak badaude, Udalarari horiek onartu, errespetatu eta bideratzea dago kiola, ez horiek tutelatu eta inposatzea. Ez dugu onartzen jaiak antolatzeke herri ekimen osasuntsu eta anitz bat egon, eta jaia ere ondo doanean, interes politikoengatik guzti hori pikutara bidali nahi izatea.

Bestalde Kultura zinegotziak komunikabideetara bidalitako gutun batean, modu nahasian, jai herrikoien ondasuna eta kultura taldeen parte-hartzeari buruzko, "zentzuzko gogoeta" ausardiakeriaz planteatzen zuen. Tartean, Gabonak, umeen sentsibilitatea eta kultur taldeen eginkizunen inguruko galderak, zaku berean sartzen zituen. Gainera, gogoeta interesatua planteatzen zuen, jaiaren herriko kultura taldeak implikatu ez izanaren ezgaitasuna ezkutatzeko eta bere erantzukizun politikoa zuzitzeko: Itxura denez, Udalak ekintza kulturalak antolatzen ditu, ez dakigu nork ematen duen hiri motako label fiktizioa lortzeko, beraz kulturaz baliatzen da helburu politikoak erdiesteko. Gure ustez jaiak eta kulturak behar dutena herriaren par-

te-hartzea da, eta ezin da onartu hori alde batera utzi izana helburu politikoak direla eta.

Halaber, nabarmentzekoa da, Santamas jaiarekin eta Olentzerorekin gertatzen ari dena ez dela kasu isolatua, azkeneke bi urteotan Arrasateko auzoetako jaiak (Musakola, San Andres...) antolatu eta horietan parte hartzeke eraman den kultura "politika" kezka handiz bizi izan ari baikara. Jaiak prestatu, bizi eta parte hartzeke protagonismo instituzionalistagatik herri eragileak baztertzeko badira, herrigintzako altxor preziatu bat (jai herrikoia eta parte-hartzaileak) galduko dira duda barik.

Orain arte gure identitate kolektiboa sozializatzeke era xumean jardun dugu, datozen urteetan ere, gure egitekoarekin jarraitzeke borondatea dugula adierazi nahi dugu, eskal kulturaren espresio desberdinak plazaratu, zabaldu eta bultzatzen jarraitzeke.

Izan ere, ez dugu galdu nahi orain arte kontsolidaturik zegoen Santamasen jai eredu, kultur taldeekin elkarlanean, Udalaren laguntzarekin eta herriaren parte-hartzearekin burutzen zena. Komisiñuek beti prest egongo da jai eredu hori berreskuratzeko, ekarpenak egin eta herriko kultura eragile guztiarekin hitz egiteke. Hori lortu bitartean, hemen izango gara, herrigintzan lanean, beti jai eredu horren defentsan eta modu zintzoenean gure iritzia plazaratzen. Zaudete lasai.

SANTAMAS KOMISIÑUEK

Arrasate

Bergara aldeko hiztegia: lan dotore bikaina

Hori pasau zuan 1984ko zemendixan. Eguaztena zala esango neke. Mendigebitekin da halako batean...

Duela ez urte asko ohikoa izan zitekeen esaldi hau, nekez ulertzen dute gaur gure eskualdeko biztanleek. Deigarriagoa oraindik, eguazten asteke zein egun den jakiteke ere, gazte batek baino gehiagok arazo larriak izango lituzke.

Hizkuntzak aldatuaz doaz. Beste kultura eta hizkuntza batzuen eragina handia delako eta baita ere hiztunek errazenera jotzen dugulako komunikazio beharretan. Beste batzuetan gertatzen da hitzak desagertu egiten direla adierazteke balio zuten objektua bera desagertzen delako. Naturako espeziekin beste hainbeste gertatzen da. Beti ari dira egokitzapen prozesuetan. Egokitzen ez dena azkenean desagertu egiten da. Euskararentzat ere onartu beharko dugu printzipio nagusi hori.

Batuak salbatuko omen gaitu. Nik ere hori sinistu nahi dut. Baina bitartean zer geratu behar da euskalkien aberastasunetik? Zer baserria utzi eta hirietara iristeko bideetan baztertuta, herdoiltzen utzi ditugun hitz guztiarekin? Filologo eta adituen liburutegietako apaletan leudeke, Juan Martin, Jaioneke eta eurak bezalako beste hainbatek hitz zaharrak bildu eta sailkatzeke lanetan

ordu mordo bat eman izan ez balute. Lan hauetan aritu diren guztien izenak hiztegian agertzen dira eta alperreko lana litzateke berritri aipatzea.

Lan dotorea Bergara aldeko hiztegi hau. Sarri begiratzeko gure euskara hobetu nahi badugu.

Jorge Luis Borges idazle argentinarri buruz entzuna dut, ez dakit zenbat aldiz zeukala irakurrita britainiar entziklopedia. Ez dakit horra iritsi beharko ote dugun, baina etxeke salako apalean eduki ordez, mesila edo laneke mahaian hobeto dagoen liburua delakoan nago.

J. AZKARATE

Bergara

Loditasunaren izurritea badator gurera ere

Europako mendebaldean Ameriketako Estatu Batuetako modak eta ohiturak kopiatzen ari gara. Kontsumismoan, individualismoan eta sedentarisismoan oinarritzen den gizarte mota hori honantz dator.

Denok uste dugu ez gaituela eredu horrek gu harrapatuko, baina oso okergabiltza.

Orain ehunka urte Industri aurreko Gizakia genuen: hark janaria lortzeko lan fisiko ikaragarria egiten zuen eta egunero milaka kaloria erretzen zituen. Janari horien soberakinak goseteetarako eta negua pasatzeko gantzen bitartez gorputzean pilatzea komeni zitzaion. Gero, Gizaki Industrialak etorri zen, hark ere bere janaria lortzeko lan fisiko handia egiten zuen.

Orain, mendebaldean daukagun gizakia Gizaki Teknologikoa da, hark janaria lortzeko ez du ia kaloriarik erre behar, beti jarrita dago, ordenagailuari itsatsita, beti autoz dabil, igogailuz... Hemendik 20-30 urtera gizon teknologiko horren bizimodu sedentarioa areagotu egingo da.

Sedentarisismoa gaixotasun kardio-baskularretan eragin handien duen faktorea da; arrisku hori %56 gehitzen du. Sedentarisismoak ere loditasuna areagotu egiten du eta bien artean diabetesa, hipertentsioa, bihotzekoak... izateko joera igotzen du.

Ameriketako Estatu Batuetan, Gizaki Teknologikoaren bizimodu sedentarisismoan eta elikadura hiperkalorikoan oinarritzen da, gizarte oso bat loditu egin da eta loditasunaren kopurua biztanleriaren %60ra iritsi da. Izurrite hori geurera dator, eta eredu horren kontra borrokatu behar dugu. Prebentzioa egiten ez badugu, geurean gaixotasun kardio-baskularrak ikaragarri areagotuko dira.

Prebentzioan bi alde dira garrantzitsuak. Batetik, elikadura egokia. Haurrei irakatsi behar zaizkie nutrizio egokiaren oinarriak: barazkiak eta fruta jatearen garrantzia, lekale gehiago jatearen premia, Ameriketako Estatu Batuetako janari bizkorra baztertu beharra...

Bestetik, sedentarisismoari aurre egin. Gure bizimodu honetan sedentarisismoaren kontra egiteke aktibitate

fisikoa eta kirola ezinbestekoak ditugu, bestela loditasunak eta horrek dakarren gaixotasun kardio-baskularrak harra-patuko gaituzte.

Hona hemen, sedentarismoaren kontrako nire proposamenak:

1. Kirola edo aktibitate fisikoa egunerokotasunean sartu behar dugu, bestela oso kaloria gutxi erreko ditugu. Esaterako, txokolatzeko palmera batek (170 gramo) 935 kaloria ditu; patata frijitu pakete batek (45 gramo), 239 kaloria; garagardoak (500 ml), 225 kaloria; ardoak (500 ml), 375 kaloria...

Eta, ostera, ordubete bizikletaz paseatzen erretzen dira 200 kaloria; ordubete bizikletaz entrenatzen, 300-400 kaloria; ordubete bizikletaz lehiatzen 500-600 kaloria; spinningeko saio baten erretzen dira 200-300 kaloria; ordubete oinez 148 kaloria; ordubete igeri eginez 533 kaloria...

2. Sedentarismoari aurre egiteko, egunero edo asteko egun gehienetan kirol aerobikoa (igeri, ibili, bizikletaz...) 30 minutu gutxienez egitea proposatzen dugu. Hori ezinezkoa egiten bazaigu, gure eguneroko ekintzetan aktibitate fisikoa sartuko dugu: lanera oinez joan, eskailerak oinez igo, autoa ahal den gutxien erabili...

3. Kirola edo aktibitate fisikoa gustukoa izan behar dugu, bestela berehala utziko dugu.

4. Haurrak mugitzea eta hezte aktibitate fisikoaren garrantzian ezinbestekoa da, bestela etorkizunean gaixo kardio-baskularrak izateko arrisku handia daukate.

ALEJANDRO ALTUNA (KIROL MEDIKUA)
Arrasate

Aretxabaletako Udalari, eskerrik asko!

Eskerrik asko esan beharko genioke Aretxabaletako Udalari, baldin eta horretarako meritua egin izan balitu. Tamalez, ordea, ezin dezakegu esan Herriko Plaza 7ko bizilagunak gustura gaudenik Udalaren jarrerarekin.

Aratusteetako asteburuan zenbait ezezagunek txikizioak egin zituzten Aretxabaletan; tartean, gure eraikineko igogailuan etxafuego bat leherrarazi zuten eta kalte material ugari eragin zituzten. Horren aurrean, Udalera jo genuen laguntza eske txikizioak ordaintzeko, baina gure ahalegina ustela izan zen. Kasurik ez ziguten egin eta gure ardura zela esan zigun Aretxabaletako Udalak. Hori bai, nahi izanez gero epaitegian gazteen kontrako salaketa jartzeko gomendatu ziguten. Ez dugu asmorik epaiketara joateko; izan ere, txikizioen arduradun zuzenak nortzuk diren ez dakigu.

Aretxabaletako Udala ez da txikizioen arduradun zuzena, baina zeharkako arduradun badela uste dugu. Etxafuegoak eskuetan eztanda egin izan balio ezezagunari zer gertatuko zen? Uste du Aretxabaletako Udalak gaztearen gurasoek ez ziotela ardura leporatuko? Uste du Udalak kasu horretan ez lukeela izango erantzukizuna? Aurretik aipatu ditudan ezezagunak Santa Ageda mutilak zirela guztiok dakigu herrian; zergatik ez diete dirua exijitzen jaia egin aurretik? Horrela, behintzat, txikizioak eraginez gero, Udalak izango luke dirua txikizio horiek ordaintzeko.

Ez dugu ohituren kontra egingo, baina uste dugu Udalak baduela ardura, eta horrelako txikizioetan kargu hartu beharko lukeela uste dugu. Badaezpada ere, horren guztiaren berri eman diogu Arartekoari. Ea, behintzat, Iñigo Lamarkak arrazoia ematen digun.

NERE OTADUI (HERRIKO PLAZA
7KO BIZILAGUNEN ELKARTEKO
LEHENDAKARIA)
Aretxabaleta

San Martin Agirrek bere haur eskola (0-2) nahi du

Bergarako San Martin Agirre Herri Eskolak, eta bere izenean Eskola Kontseiluak, Zuzendaritza Taldeak eta Guraso Elkartek, Bergarako herriari hainbat argibide adierazi nahi diogu, bidezkoa deritzegun eskaeren aurrean ez dugulako instituzioen erantzunik izan.

Dakizuenenez, Bergaran dauden hezkuntza aukeren artean gureak izaera publikoa dauka eta azken ikasturteetan herriko familien heren batek gure eskaintza aukeratzen du.

Bergara mailan, eskola publikoaren aukeraketa egin dugun familiok, ezin dugu gure seme-alaben eskola heziketa sare horretan hobetsi, haur eskola publikorik ez baitago. Hori dela eta, eskaintza pribatura jo beharrean aurkitzen gara.

Haur eskola (0-3 urte) publikoen kudeaketa partzuergoaren bitartez egiten da; horretan, herri administrazioak eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek hartzen dute parte. Zerbitzu publiko hori abian jartzearen erantzukizuna Udalari dagokio, eta hark jarri behar du horretarako eraikuntza, baldin eta ikastetxean ez badago horretarako tokirik edo dagoena egokia ez bada.

San Martin Agirre Herri Eskolak Boni Laskurainen duen eraikuntzan ez du leku aproposik bere garapenak sortutako eta gure erako ikastetxe batek dituen beharrei era egokian aurre egiteko. Matrikulazio bilakaeraren ondo-

rioz, datorren ikasturterako ikasle talde bakoitzarentzat ez dugu gelarik izango. Azken urteetan, taldeentzako gela bihurtu behar izan ditugu beste gela espezifikoko batzuk, hau da, ingelesekoa, musikakoa edo tailerra, eta ez dauka gu baldintza egokiak dituen soinketa gelarik edo toki estalirik jolasetarako.

0-1 urte eta 3-6 urte zikloen kokapena egoitza berean egotea ezinbestekoa da Haur Hezkuntza osoaren hezkuntza proiektuaren kalitatea bermatzeko eta, era berean, zerbitzuei (jangela, garraioa, harrera...) etekin hobea ateratzeko.

Aurreko guztia kontuan izanik, gure ustez konponbide zentzuzkoena ondorengo hau izan daiteke: Martinez de Irala eraikuntzaren erabilera berreskuratzea. Ikastetxe horrek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren jabegoa du; herri orubean dago eraikita; beraz publikoa da. Eta beharra balego, hezkuntzako beste jarduera batekin konpartituz genezake.

Hori guztiagatik, behin eta berriro era ofizialean egin dugun eskaera bera beste behin ere egin nahi dugu: Bergarako Udalak, alkatearen bitartez, eta Hezkuntza Sailak gure eskaerak kontuan izan ditzatela erantzuna emanez, eta hori lortze aldera negoziazio bideak jar ditzatela, elkarlanean jarduteko eta guztien artean konponbide egokia adosteko.

SAN MARTIN AGIRRE
ESKOLAKO KONTSEILUA
Bergara

Euskal presoen borrokaldia

Pasa den astelehenean, urtarrilaren 3an, euskal preso politiko guztiak planto orokorra burutu zuten Frantzia, Espainia eta mundu zabaleko espetxetan. Hamar minutuz uko egin zioten euren zigor-geletara itzultzeko aginduari. Espetxe diziplina hautsi egin zuten gatibu hartzen dituzten gertuko zein urruneko espetxetan. Ekintza horri segida eman diote itxialdi txandakatu baten bitartez. Lehen txanda urtarrilaren 4an abiatu zen.

Ekintza bateratu horren bitartez, preso kolektiboak borroka dinamika iraunkor bati ekin dio. Sakabanaketaren kontrako borrokan aro berri bat ireki du. Nahikoa da! Ozen esateko tenorea iritsi da. Amaitu berri den urtean, Oihane Errazkin eta Kepa Miner lagun eredugarriak galdu ditugu. Lehen, beste hamazazpi preso gehiago galduak genituen. Eta senide eta lagun artean ere hamasei galtzera iritsi gara aurtengoarekin. Borrokaldi hau 15etik 26ra luzatuko den gose greba batekin amaituko dute, Aberri Egunean beraz.

Hona hemen, euskal presoak Euskal Herriratzearekin batera, euren estatus

politikoa hezurmamitzen duten esku-bideak: tortura eta tratu krudelik ez; ez isolamendurik ez jipoirik; osasun esku-bidea: preso gaixo larrien kaleratzea; komunikazio esku-bidea: ez interbenziorik ez mugarik; hizkuntza esku-bidea: euskaraz bizitzeko esku-bidea; hezkuntza esku-bidea: ikasteko zangotrabarik ez; Euskal Herrian elkartzeko esku-bidea; antolatze esku-bidea; gure mintzakidetzak aitortza; beste eragileekin harremanak edukitzeko esku-bidea; euskal eztabaida eta erabaki gune orotan parte hartze esku-bidea.

Presoek izan beharko lituzketen ezinbesteko baldintza horien alde zuen atxikimendua eskatzera gatozkizue oraingoan. Baita hasi berri duten borroka honen inguruan antolatu diren ekintzetan parte har dezazuen. Ekimenak honako hauek izango dira: martxoaren 15etik 26ra, arratsaldeko 19:30ean elkarretaratzeak herriko plazetan. Eta, martxoaren 19an, Fleury-ko espetxera martxa.

BERGARAKO ASKATASUNA
Bergara

Gizakiak sortu duen mundua

Gaur ere ikusi dut Corporacion Dermoesetica-ren iragarkia eta agertzen diren neska lirainak inbidiaz begiratu ditut. Ez dakit hain urrun helduko nintzatekeen gorputz polita izatearren, baina nik neure gorputzaz dudan irudiaren balorazioa jaitsi egin da horiekin konparatu naizenean.

Horren ostean, Donuts Light-en iragarkia ere azaldu da. Kaloririk kontatzen dituen neska hori ere oso liraina da eta donutsak janez gorputz hori edukitzeak inbidia eman dit ere. Nik ez dut donutsik jaten, eta, hala eta guztiz ere, ez dut lortzen hark bezalako gorputzik izatea. Eta zerealen iragarkiak ere. Eta jogurtenak ere...

Zerrenda luzea egin daiteke gorputzaren idealari garrantzia ematen dieten iragarkiekin. Eta, noski, horrekin batera, saltzen diren produktuekin, jendeak egiten dituen komentarioekin, pentsamendu irrazionalekin... Azken finean, mundu berri bat dela esan daiteke. Bertan sartzea oso erraza den mundu bat. Eta, mundu guztiak bezalaxe, bere arrisku larriak dituena.

Hori al da bizi eta eraiki nahi dugun mundua? Itxuran oinarritzen den mundua? Historian zehar pentsamenduen bitartez horrenbeste lortu duen izaia, gizakia, itxuran eta gorputzaren idealtasun printzipioan oinarritzen al da? Barka iezadazue esamoldea, baina patetikoa iruditzen zait.

AMAIA ARROYO SAGASTA
Arrasate

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkoroberezar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi



KIA PICANTO 1.0 / 1.1
7.300 eurotik aurrera*



KIA RIO 1.3
9.300 eurotik aurrera*



KIA CERATO Gasolina/Diesel
11.300 eurotik aurrera*

SPORTAGE BERRIA



KIA SPORTAGE Gasolina/Diesel
18.300 eurotik aurrera*



KIA CARNIVAL Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*



KIA OPIRIUS V6
29.300 eurotik aurrera*



KIA SORENTO Gasolina/Diesel
24.300 eurotik aurrera*



KIA MAGENTIS 2.0
17.300 eurotik aurrera*



KIA CARENS Gasolina/Diesel
14.300 eurotik aurrera*



Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala

Erakusketa eta tailerra

TECNOCAR GIPIZKOA

Araba etorbidea z/g - Arrasate - 943 79 22 67 - Faxa: 943 71 27 38

Adi!

- 3 urteko garantia
- 0 km aukera bereziak



HONDA JAZZ 1.2 / 1.4
11.300 eurotik aurrera*



HONDA CIVIC (3 ate) Gasoli./Dies.
13.300 eurotik aurrera*



HONDA CIVIC (5 ate) Gasoli./Dies.
15.300 eurotik aurrera*

FRV BERRIA: 6 eserleku



HONDA FRV
20.600 eurotik aurrera*



HONDA ACCORD Gasoli./Dies.
22.100 eurotik aurrera*

CRV DIESEL BERRIA



HONDA CRV
27.300 eurotik aurrera*



HONDA HRV
17.700 eurotik aurrera*

*Prever plana barne.

Tottenham eta Real Madril, gurean

21. Gazte Mailako Futbol Txapelketako hiru norgehiagoka jokatu dituzte ibarrean

XABIER URTZELAI

Aurreko urteotan moduan, aurtengo Realeko gazte mailako txapelketa erakargarri dator. Aste Santuan jokatu duten txapelketari Tottenham eta Fiorentina taldeek emango diote nazioarteko izaera. Fiorentinak, baina, ez du ibarrean jokatu. Talde ingelesak, berriz, bai.

Martxoaren 24an hasiko dute txapelketa, Zubietan, eta lehenengo partidua Realak eta Tottenhamek jokatu dute, 12:30ean. Hurrengo egunean, Atxabalpen (Arrasate), Gipuzkoako konbinatuak eta Athleticek neurtuko dituzte indarrak, 17:00etan. Talde zuri-gorrian ez dago Debagoieneko ordezkariarik, baina Gipuzkoako konbinatuan baliteke Andoni Andres arrasatearrak jokatzera. Egun, Antiguokon jokatzeko du Andonik, baina min hartuta egon da eta ez da ziurra txapelketan esku hartuko duen; jokatu balu, hura izango litzateke ibarreko ordezkari bakarra, Realeko gazte mailan ere ez dago-eta hemengo jokalaririk.

Martxoaren 26an, Agorrosinera (Bergara) iritsiko da txapel-



Orain urte batzuk Bartzelona taldeari Agorrosinen egindako argazkia. Besteak beste, Puyol eta Gerard daude erretratuan.

keta, eta joan den urteko txapel-dun Osasuna eta Tottenham izango dira aurrez aurre (17:00etan). Eta, martxoaren 27an, Debagoienan jokatu duten norgehiagoka erakargarriena izango da Azkoagainen (Oñati): Real Madril eta Tottenham zein baino zein gehia-

go, 17:00etan. Martxoaren 28an jokatu dute finala, Anoetan.

ZUBIETA 21. JARDUNALDIA

Txapelketaren inaugurazio ekitaldian, Eguen Santuan, 21. Zubieta XXI Jardunaldia egingo dute. Bertan, hainbat norgehiagoka

jokatu dituzte Gipuzkoako eskolako neska-mutikoei. Realeko, Santanderko Racingeko eta Osasunako 15 urteko mutikoei txapelketa jokatu dute; horrekin batera, Realeko eta Lyongo Olympique taldeko neskek ere lehiatu dira.

Kirolabur

MENDIKO ESKIA/ALPEAK

Pierra Menta lasterketan esku hartzen dabilta Isa Casado eta Leire Ezpeleta arrasatearrak, Alpeetan. Eguaztenean hasi zuten proba, eta bihar egingo dute azkeneko jardunaldia Grand Mont izeneko etapa ezagunean. Lau eguneko proba gogor horretan, eskiatzaileek 10.000 metroko desnibela gaituzte dute.

ESKUBALOIA/ARRIKRUTZ

Oñatiko eskubaloitzaileek Madrildo SA-FA Catesa taldearen kontra jokatu du bihar, 18:00etan, Zubikoan. Joan den astean, Zaragozako Maristas taldearen kantxan garaipen garrantzitsua erdietsi eta gero (27-28), bihar, oñatiarrek etxeko puntuak Zubikoan geratzeko egingo dute lan.

FUTBOLA/PREFERENTEA

Asteburuan, hiru norgehiagoka jokatu dituzte ibarrean. Aretxabaletak Touring-en bisita izango du domekan (16:30ean). Mondrak Zestoa hartuko du Atxabalpen (zapatuan, 16:30ean), eta Realaren harrobiko EHU etorrriko da Bergararen kontra jokatzera (zapatuan, 16:30ean). Oñatiko taldeak Lesakaino joan beharko du, Beti Gazteren kontra lehiatzera (domekan, 16:30ean).



MULTIOPTICAS

al-aire
armazoiak

95€

eta opari
polarizatutako eguzki-klika



Nork esango zion Joni click batekin

al-aire

betaurrekoak eguzkitako betaurreko bihurtuko zirela

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA



R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

gasteizon

centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU

www.gasteizon.com

2005eko martxoaren 11tik 17ra

Florida  Guridi

CINES GURIDI ZINEMAK

"EL HUNDIMIENTO" • 17:00 - 19:45 - 22:30
"BLADE TRINITY" ESTRENALDIA • 17:30 - 20:00 - 22:30
"LOS PADRES DE EL" • 17:30 - 22:30
"EL SECRETO DE VERA DRAKE" • 20:00
"EL ESCONDITE" • 17:30 - 20:00 - 22:30
"DESCUBRIENDO NUNCA JAMAS" • 17:00 - 19:45 - 22:30
"HITCH - ESPECIALISTA EN LIGUES" • 17:00 - 19:45 - 22:30
"MILLION DOLLAR BABY" • 17:00 - 19:45 - 22:30

Florida  Guridi

CINES FLORIDA - GURIDI ZINEMAK

"EL PENALTI MAS LARGO DEL MUNDO" ESTRENALDIA
17:30 - 20:00 - 22:30
"GEORGE AND THE DRAGON" (V.EUSKERA) ESTRENALDIA
17:30 - 20:00 - 22:30
"HOTEL RWANDA" • 17:30 - 22:30
"LA CASA DE LAS DAGAS VOLADORAS" • 20:00
"ENTRE COPAS" • 17:30 - 20:00 - 22:30
"CARTA DE UNA MUJER DESCONOCIDA" • 17:00 - 19:45 -
22:30
"BROTHERS" ESTRENALDIA • 17:00 - 19:45 - 22:30
"LOS CHICOS DEL CORO" • 17:00 - 19:45 - 22:30



Congreso y Turismo
Biltzar eta Turismoa
VITORIA-GASTEIZ

MARTXOA • 11 ostirala

ANTZERKIA
"El tiempo herido"
20:30. Printzipal Antzokia. Traspasos taldeak

MARTXOA • 12 larunbata

IPUIN KONTALARIA
Blanca del Rio
18:30. Falerina lorategia
FLAMENKOA
María Toledo
20:30. Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia (Hegoalde Gizarte
Etxea)

MARTXOA • 13 igandea

FAMILIA GIROKO ANTZERKIA
"Las tres mellizas y el enigmático Sr. Gaudí"
18:00. Printzipal Antzokia. Roser Capdevila
14 astelehena

kultura

Fashion Week

07 MARTXOAREN 14TIK 19RA
2005EKO UDABERRI-UDAKO JOEREN

MODAREN ASTEA
VITORIA-GASTEIZ

DESFILEAK - ARTIUM
Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

20.30.14 2005EKO UDABERRI-UDAKO JOEREN AURKEZPENA
ILEAPANDEGI ETA ZAPATA JOERAK: OSCAR G ETA VALENTINO 'S

20.30.15 HIRIKO MODA
DOTOIRE: RIOS MODA II
KALE GORBEAMODA: DONINGTON GORBEA, IBÁÑEZ, MIA MODA MUJER, MILORD, YAZAR ETA ZAPATERIA BENGOA II
BOUTIQUE PATRICIA: AURKEZPENA J&G BILDUMA II LENCERIA: YOAR
ILEAPANDEGI ETA MAKILLAJEA: PELUQUERIA ELENA ANSOTEGUI, SALÓN DE BELLEZA KORAY ETA SALÓN DE BELLEZA ARIADNA

19.00.16 HAURRENTZAKO MODA
BOUTIQUE INFANTIL ELBE

20.30.16 KIROL MODA: VITORIA/GASTEIZKO JENDE EDERRAREKIN
ALTUBE UMIBERTSITATEKO ELKARTEA: DESFILETUKO DA
BELAKORTU KIROLAK, GAIKAR KIROLAK, KIROLAK ZUBIAURRE
ILEAPANDEGI: ETERNIAN EDERKIREN PRODUKTUEKIN

20.30.17 ARABAKO DISEINALARI BERRIEN DESFILEA
ILEAPANDEGI: OSCAR G

20.30.18 GAZTEENTZAKO MODA
BLONDIE: MIRIAM OCAZIZ ETA LUDIA DELGADOEN BILDUMAREN AURKEZPENA
MOD ART II DUBLA, X-TREME II LOLA, VOX
ILEAPANDEGI: ETERNIAN EDERKIREN PRODUKTUEKIN

20.30.19 2005EKO UDABERRI-UDAKO JOEREN AURKEZPENA
ILEAPANDEGI ETA ZAPATA JOERAK: ETERNIAN, EDERKI ETA VALENTINO 'S
JANTZIAK: VOX

LOR ITZAZU ZURE GOBIDAPENAK SALTOKI
BAZKIDEETAN

extra FASHION EVENT
OSTEGUNA 17 23:00 ETAN
MODELAREN KOKTELA
CAFÉ PLAZA. POSTAS, 5



Merkatari Partehartzaileak: Alazne Boutique, Alazne Nupcial, Albareda, Ana Muguerra, Blondie, Boutique Patricia, Cloé, Danae Tejidos, Donington, Donington Gorbea, Dotore, Dubla, Ecocentro, Fernando, For, Guchi, Ibáñez, Joyería Ordax, Karnele Boutique, Lord Garden, L'corp, Lencería La Góndola, Lencería Yoar, Lola, Luyando Ópticos, Mara Mujer, Marisa, Mencia Óptica - Multiópticas, Mia Moda Mujer, Milord, Mod Art, Modas Ibáñez, Ramón Peña, Ríos Moda, Shiva Boutique, Suite, Trium, Tribal Area, Urbieta, Vox, X-treme, Yazar Styl.

Zapatak "Grupo Valentino's"-i esker: 2πR, Destroy, Charo Duarte eta Valentino 'S.
Ileapaindegi eta Makilajea Eternian, Oscar G, Peluquería Elena Ansotegui, Salón De Belleza Koray eta Salón de Belleza Ariadna esker.

Diseinalari Partehartzaileak: Ainhoa Sarasua, Amaia Berzosa, Ana Isabel Espina eta Milagros Lastra, Belén Berdejo, Cintia Robles, Edurne Herran, Iván Vaz, María Cle, Melina López, Miren Elorrieta.

Antolatzaileak:



Babesleak:



Laguntzaileak:



Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko martxoaren 11

Kultura
eta
aisialdia



Martxoaren
11tik 18ra

Literaturaren uretan, mundura eta gure barnera bidaia

HUHEZIKo VII. Literatura Astea izango da hilaren 14tik 18ra, eta bidaia da aurtengo ardatza.

KULTURA/ 'LITERATURA ETA BIDAIAK', HUHEZIKO LITERATURA ASTEAREN ARDATZA

Bidaiatzeko gonbita, ibar osoari

JOAN DEN MARTITZENEAN AURKEZTU ZUTEN VII. LITERATURA ASTEA, ETA ATZO, EGUENA, ZIREN LEHENENGO EKITALDIA EGITEKOAK

LEIRE KORTABARRIA

Aurten berritasun handi bat izan du Huhezi fakultateko Literatura Asteak: bidaiak dira ardatza, eta Asteak bidaiatu egin du eta Debagoienera zabaldu da, atzo, eguena, Arrasaten egitekoa zen jardunaldiarekin. Baina gozamen gehiago ditugu zain bidaia literario honetan.

Huheziko Literatura Asteko ekintza gehienak astelehenean, hilak 14, hasi eta egubakoitzera, hilaren 18ra, bitartean izango dira, egunero hitzaldi edo kultura proposamen bat, fakultatean bertan. Euskal literaturako eta musikako izen ezagunak etorriko dira, norberak bidaien gaineko ikuspuntu pertsonal bat eskaintzera. Astea joan den martitzenean aurkeztu zuten Matilde Sainz Huheziko Hezkuntza lerroko zuzendariak, Mainer Otamendi Kultura zinegotziak eta Arantza Ozaeta antolatzaileak.

Baina VII. Literatura Aste honen berritasun garrantzitsu

bat ekarri digu: atzo, eguena, ziren egitekoak ekintza bat fakultatetik eta Eskoriatzatik kanpo, lehenengo aldiz: hain zuzen, Roge Blasco *Levando Anclas* irratsaioa zuzenean egitekoa zen Arrasaten, Ana Maria Briongos bidaia-riaren laguntzarekin. Arantza Ozaeta antolatzailearen esanetan, "Debagoienean beste ekimen batzuekin gertatu den bezala -Goiena, kirol txartela...-, Literatura Astea ere Debagoienera zabaltzea da gure asmoa".

Asmo hori bat dator Literatura Astearen filosofiarekin: "Jendeak beti ondo erantzun digu. Hartzaile nagusiak ikasleak dira, baina baita herritar guztiak ere. Gure ametsa da Aste honen bidez gizartea jantziagoa izatea", gaineratzen du Ozaetak.

BI IKUSPEGI

Literatura Asteak zenbait gai handi ukitu ditu orain arte, hala nola, umorea, errealitatea, erotismoa, filosofia... Aurten, bidaiak aukeratu dituzte. Gai horren gaineko bi ikuspegi nagusi

si azalduko dira: bidaia fisikoa, batetik, eta horien ereduak emango dituzte Jon Arretzek eta Harkaitz Canok, batez ere; eta barne bidaia, bestetik. Horren inguruan egingo du bere hitzaldia Anjel Lertxundi idazleak.

Aurkezpenean, Arantza Ozaetak esan zuen "gizakiaren gai handietako bat" dela bidaiarena eta, gero, honako gogoeta egin zuen: "Bidaiak eta literaturak elkar elikatzen dute. Bidaiariak liburua izango du lagun min, eta liburua irakurtzen duen irakurleak bidaiatzeko aukera izango du, literatura beti bidaia baita, Anjel Lertxundiren hitzaldiak dioskun bezala".

Euskal letretako beste izen handi baten hitzak aukeratu zituen Ozaetak gonbit bat egiteko: "Dio Sarrionandiak errepi-deak, autopistak, mando bideak, estartak, bidezidorrak... guk hartzen ditugula. Baina gehienetan, haiek hartzen gaituztela gu. Nahiko nuke Huheziko gizartearekin zabalik duen bide horrek zuek ere aukeratzea".



GOIENKARIA

Literatura eta musika

Patxi Zubizarreta, Xabier Muguruza, Txema Garces eta Joseba Loinazek *28 letra eta 7 nota munduaren itzulia egiteko* ikuskizuna egingo dute hilaren 17an, 19:00etan. Jules Vernek 80 egun behar izan bazituen, "guk apustu handiagoa egin eta ordubete egingo dugu itzulia", diote.

Zubizarretak Julio Villarren bidaia testuak irakurriko ditu; Muguruzak kantu bat eskainiko du; eta Garcesen baxu soinuak eta Loinazen pianoa lagun izango dituzte entzuleek.

Ikasleak ere, antolatzaile

Literatura Asteko oso ekintza arrakastatsua izaten da urtero ikasleek egiten dutena. Aurten ere antolatu dute euren ekintza: *Hitzak lagun, bidaia dezagun* izenburuarekin, Astea ixteko erreztaldia egingo dute hilaren 18an, egubakoitza, 11:30ean. Maila guztietako ikasleek parte hartzen dute.

Ez da hori aurten izan duten ekimen bakarra. Izan ere, Humanitate eta Komunikazioko ikasleek, Beñat Azurmendi irakaslearekin, blog bat prestatu dute Astearen berri emateko. www.literaturastea.blogspot.com helbidean dago.




JON ARRETXE

'Mundua zazpi koloretan'

Astelehena, martxoak 14, 19:00etan

Bidaiatu duen munduko hogeit hamar herrialdeko diapositibak erakutsiko ditu basauriarrak, marrazki batzuekin batera. Horiekin, musikarekin eta *7 Kolore* bere liburuko pasarteekin, munduaren koloreak erakutsiko dizkigu.




ANJEL LERTXUNDI

'Literatura beti bidaia baita'

Martitzena, martxoak 15, 19:00etan

Irakurketa zein idazketa barneko bidaia direla azalduko du, eta gauza askotaz dugun irudia kontakizunen bidez egin dugula. "Beste batzuek egingo bidaiarekin egiten ditugu gure bidaiarako espazioak", dio Lertxundik.



HARKAITZ CANO

'New York: gosaria diamanterik gabe'

Eguaztena, martxoak 16, 11:30ean

"Hiriak zelan pertsegitzen nauen kontatuko dut", dio Canok. New Yorken izan zeneko bizipenak uztartuko ditu denborarekin egin duen gertaeren berritzairekin: "bizi izan duzula uste duzunaz", berak dioen bezala.



Bai, nahi dut.

Ezkontzen gaineko gehigarria, martxoaren 18an, egubakoitza, Goienkariarekin batera

Etxe hauen laguntzarekin: Troko jantzi denda • Amuebladora Mondragonesa • Baster jantzi denda • Lasagabaster • Guztiz eder estetika zentrua • M. Jesus argazkilaria • Etxe Aundi jatetxea • Corte Blanco jantziak • Lilura estetika zentrua • Barceló bidaiak • Lore lurrindegia eta estetika zentrua • Zubiaga bitxitogia • Sastreteria Mujika • Mendigoikoa jatetxea • Gemes estetika zentrua • Lasa jatetxea • Bea lentzeria • Joseba jatetxea • Iker sukaldeak • Eroski bidaiak • Makatzeta jatetxea • Jean Louis David ile apaindegia • Marga jantziak

Goienkaria
DEBAGOIENENGO ASTEKARIA

MANUEL SALABERRIA / LOIOLA KLINIKAKO MEDIKU OFTALMOLOGOA

"Begietako gaixotasunak eta erretina tratatzen lehenak gara"

Azpeitian ditu operazio-gelak eta lanerako ekipamendu osoa Loiola Klinikak, baina Donostian ere badu kontsulta. Begien erretinaren gaixotasunak tratatzen dituen zentro bakarra da Euskal Herrian, eta puntako teknologia erabiltzen du.

Zer da Loiola Klinikak?

Begietako gaixotasunak tratatzen eta sendatzen ditugu Loiola Klinikak.

Begietako zein gaixotasun tratatzen dituzue?

Gehienbat erretinako gaixotasunak. Adibidez, diabetesak sortzen dituen arazoak eta itsu gelditzeko arriskua sortzen duten gaixotasunak. Erretinaren erdi-erdian dagoen makula ere oso garrantzitsua da, eta hori ere tratatzen dugu. Baita kataratak ere. Itsutasunarekin lotura zuzena duten gaixotasunak tratatzen ditugu.

Klinika berritzailea eta bakarrakoa da, ezta?

Bai, begiaren erretinaren gaixotasunak tratatzen dituzten klinikak oso gutxi daude. Gai honetan, Loiola Klinikak bakarra da Euskal Herrian. Ni neu Bartzelonan ibili nintzen ikasten, Europako klinika onenetakoan, eta han ikasitakoa hona ekarri dut.

Frantziako teknikak erabiltzen dituzue?

Osakidetzan ibili nintzen lehenengo, eta Iparraldeko klinika batetik deitu zidaten, erretinako gaitan sartu nahi zutelako. Hara joan nintzen, eta Frantziako osasun sistema asko gustatu zitzaidan, ezberdina da baina oso gustukoa dut. Orain bi tokitan egiten

du lan, Iparraldean eta Loiolan, Azpeitian.

Teknika aurreratuak erabiltzen dituzue?

Bai. Bitreo-erretinako kirurgia erabiltzen dugu. Gainera, teknikaz gain, teknologia ondo ezagutzen duten pertsonak osatzen dugu taldea: materiala ondo ezagutzen duena eta ondo prestatu eta erabiltzen duena. Talde osatua gara.

Klinikak ospitaleratu behar du gaixoak?

Ez. Kirurgiak asko aurreratu du azken hamar urtetik hona eta ambulatorio kirurgia egiten dugu orain, hau da, ospitaleratu gabeko operazioa. Loiola Klinikak ambulatorio kirurgikoa da.

Anestesia lokala erabiltzen duzue, ezta?

Bai. Kataratak operatzeko, adibidez, tantak botatzen ditugu. Erretinako problemak, ordea, luze-agoak izaten dira, ordu edo ordu eta erdiko operazioak gutxi gorabehera. Horrelakoetan, indizioarekin sartzen dugu anestesia begiaren ondoan.

Betaurrekoak kentzeko operazioak egiten dituzue?

Begiko gaixotasunak tratatzeko operazioak bakarrik egiten ditugu. 50-55 urte baino gehiago dituztenak operatzen ditugu betaurrekoak kentzeko, baina ikusmena finkatuta duena bakarrik operatzen dugu. Ez ditugu operazioak egiten estetika zaintzeko, ez. Hori ez da gure helburua. Gure lana begi-gaixotasunak sendatzea da.

Laserrik erabiltzen duzue?

Guretako, mota askotako laserrak daude eta laser bakoitzak bere erabilera eta funtzioa du. Erretina sendatzeko laserra asko erabiltzen



"Operazioa zuzenean ikus daiteke, eta grabatu egiten dugu"

dugu; Loiola Klinikak hiru laser, behintzat, baditugu.

Nola zaintzen dituzue gaixoak?

Azterketa bat egiten diogu operatu aurretik: analisiak, elektroa,

"Gaixoak ez du ospitaleratu behar, teknika aurreratuak ditugu eta"

zein botika hartzen duen ere galdetzen diogu eta aztertzen dugu zein aurrekari dituen. Osasuna neurtzen diogu lehendabizi. Azterketa hori oso garrantzitsua da. Horri esker, badakigu zenbat eta

nola eman behar diogun anestesia, eta Loiola Klinikara datozen guztiari egiten diegu azterketa.

Ondo ekipatua dago Loiola Klinikak?

Bai, bai. Bai operazio-gelak baita klinika guztia ere. Operazio ondorengo uneetarako ere oso ondo prestatuta dago.

Operazioa zuzenean ikus-teko aukera ere eskaintzen du Loiola Klinikak.

Operazio-gelak kristal garden handi bat dauka, eta nahi duenak ikus dezake operazioa, senitartekoren batek edo beste edozein oftalmologo edo medikuk, adibidez.

Nahi duenak begi barruko gure operazio guztia ikusten du eta baita orokorrean guk lana nola egiten dugun ere. Begiko mikrokirurgia eta gure lana, biak ikusten ditu.

Operazioa grabatu ere egiten duzue gaixoak ikusteko.

Monitore bitartez ere ikus daiteke operazioa, eta monitore hori grabatzen ari da. Operazioa egin ondoren, gaixoak ikusi dezake, horrela nahi badu, behintzat.

Zer moduz bi urteko esperientzia?

Uztailean egingo ditugu bi urte, eta, egia esan, oso pozik gaude, oso balantze positiboa egiten dugu. Giro familiarra dago Loiola Klinikak: gaixoa lasai etorri daiteke, senitartekoei ere ikusteko aukera dute nola operatzen dugun...

Zer nolako bezeroak izan dituzue orain arte?

Makula, adibidez, degeneratu egiten da urteekin eta adineko pertsonak arrisku handiagoa izaten dute itsu gelditzeko. Hala ere, gazteak ere etortzen dira; aste honetan 24 urteko bat operatu dut.



Hasieratik, tratu atsegina eta giro lasaia.



Baliabide aurreratuak.



Kontu handienaz egindako lana.



Ebakuntza ondoren ere, arreta berezia.

 LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

Martxoak 11-18

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ANTZUOLA

► **Te doy mis ojos** filma ikusi eta berriketaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Olanan etxean, 21:00etan, M. Asun Ramos Ermuko Emakumearen Sustapenerako Zentroko arduradunarekin.
► **Heriotzaren gaia nola tratatu haurrekin** izeneko berbaldia egingo du Patxi Izagirrek egunean, hilak 17, eskolan, 18:00etan.

ARETXABALETA

► **Hiru txaldea** Kuba eta Argentina-ko lagun banarekin kafe-tertua antolatu du martitzenerako, hilak 15, Basabeazpin, 19:00etan.
► **Demoak eta Zuzen taldearen** gaineko hitzaldia izango da egunean, hilak 17, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ARRASATE

► **SOS Asia laguntza ekimena** egin du Arizmendi Ikastolak; horren barne, Asiako itsasikarak kaltetutako herrien gaineko ikus-entzunezkoa eta hitzaldia egingo dute bi lagunek. Gaur, egubakoitza, izango da, Monterronen, 18:30ean.
► **Bertso saioa** izango da bihar, zapatua, Udaletxe plazan, 13:00etan, Jesus Mari Irazu, Nerea Elustondo, Amaia Agirre eta Sustrai Colinarekin.
► **Prostituzioaren gaineko eztabaida** izango da egunean, hilak 17, emakume txokoan 19:00etan, Dolores Juliano Bartzelonako Unibertsitateko Gizarte Antropologiako irakaslearekin.
► **Moda desfilea** egingo dute Arizmendiko Batxilergoko 1. mailako ikasleek egubakoitzean, hilak 18, Amaia antzokian, 18:30ean. Ikas bidaiarako dirua batzeko antolatu dute.
► **Pont d'Espagne-Panticosa** zeharkaldia egingo du Besaide taldeak hilaren 19 eta 20an, eta izena emateko egunak dira astelehena eta martitzena, hilak 14 eta 15, euren egoitzan, 19:30-20:30 orduetartean.

BERGARA

► **Mendekoste jaietan** Bideberriko kontzertuak antolatzeko batzar irekia deitu dute martitzenean, hilak 15, kultura etxean, 18:30ean.
► **Tratu txarren** gaineko berbaldia egingo du Emakundeko kide batek egunean, hilak 17, Go Jam aretoan, 18:30ean. 20:00etan, *Mi vida sin mí* filma emango dute. Azkenik, argazki erakusketa bat ere badago. Beke eta Jameko Emakumeek antolatu dute hori guztia Emakumearen Astearen barne.

DEBAGOIENA

► **Cambridgeko Unibertsitateko ingelesezko azterketak** Oñatin egin ahal izango dituzte irakaskuntza arautuan dabilzan debagoiendar guztiek. Elkar Hezi ikastetxean izango dira azterketak. Matrikula egiteko epea zabalik dago hilaren 18ra bitartean. Argibideetarako, deitu 943 78 28 70 telefonora (Maite Gantxegi).

ESKORIATZA

► **Familiako dolu egoeren** gaineko berbaldia izango da, bi zatitan, martitzenean, hilak 15, eta egunean, 17, kultura etxean, 18:00etan. Dagoeneko izena eman dutenei dago zuzenduta.

OÑATI

► **Eteoko Kultura Astea** izango da hilaren 14tik 18ra bitartean, eta egunero izango da ekintzaren bat: hilaren 14an, txotxongilo erakusketa; 15ean, sagardo eta txistorra jana; 16an, *Txa-txa-txat* antzezlan; 17an, Unai Elorriagarekin topaketa eta jendeak idazteko lpuin Iraunkorra; eta 18an, Unai Azkarate kantautorearen emanaldia.
► **DBHkoen gurasoei** zuzendutako bi hitzaldi izango dira Txantxiku Ikastolan: bata, nerabazaroko aldaketan aurrean hartu beharreko jarreraren gainekoa; bigarrena, seme-alabei laguntzeko modua. Hilario Garrudok egingo ditu hitzaldiak hilaren 15ean eta 17an, 18:30ean.
► **Erligioen arteko elkarrizketa eta kristologia alderdiak** delako berbaldia egingo du Jose Arregi frantziskotarrak bihar, zapatua, Asis Topagunean,

Arantzazun, 10:00-17:30. Bestalde, hirugarren adinerako gogo-jarduerak antolatu dituzte apirilera eta maiatzetarako. Ekintza horietan parte hartzeko, 943 78 13 15 telefonora deitu behar da.

IKASTAROAK

ANTZUOLA

► **Outlook Express** posta elektronikoko programaren gaineko ikastaroa egingo dute egunean, hilak 17, Olanan etxeko KZGunean, 09:00-11:00.

ARETXABALETA

► **Biodantza ikastaroak** antolatu ditu Sadhana zentroak apirilaren 5erako, baina doan probatzeko aukera egongo da martxoaren 15ean, martitzena, 17:30-21:30 orduetartean. Izena emateko edo argibideetarako, deitu 679 44 12 29 telefono zenbakira. Bestetik, meditazio tailerra ere antolatu du astelehenerako, 20:00-21:00 orduetartean. Horretarako izenematea 616 96 57 95 telefononon egin behar da.

ARRASATE

► **Eraikuntza sektoreko langileendako** bi ikastaro antolatu dituzte Arizmendi eta Hobetuz fundazioak: etxegintza obren neurketa eta ziurtapenen gainekoa, eta osasun eta segurtasun planen aplikazioaren gainekoa. Apirilean hasiko dira eta 30-40 ordukoak izango dira. Izenematea martxoaren 16an bukatzen da, eta honako telefononon egin behar da: 943 79 03 14.
► **Gazteendako magia eta sabeldantza ikastaroak** antolatu ditu Gazte Informazio Bulegoak. Apirilean hasiko dira. Matrikula 20 euro da, 12 ikasle edo langabeendako.

BERGARA

► **Argazkigintza ikastaroa** antolatu dute Udalak eta Pol-Pol argazki taldeak, apirilean hasteko. 40 euro da, 25 ikasle eta langabeendako. Argibideak, kultura etxean.

LEINTZ GATZAGA

► **Euskal Herriko nekazal mundua** delako Internet ikastaroa emango dute astelehenean, hilak 14, KZGunean, 09:00etatik 11:00etara bitartean.

KZGunea 13:00ak arte egongo da zabalik, gura duenak nabigatzeko.

OÑATI

► **Umeei masajeak ematen ikasteko tailerra** emango du Jone Beitialarrangoitia psikoterapeutak. Apiril hasieran hasiko da, eta zazpi saio izango dira. Izena emateko, deitu 657 72 00 49 telefono zenbakira.
► **Hainbat Internet ikastaro** antolatu ditu KZGuneak. Argibideetarako edo izena emateko, jo www.kzgunea.net webgunera edo deitu 943 71 83 20 telefono zenbakira.

ANTZERKIA

ESKORIATZA

► **Peio Añorga** ipuin kontalariaren saioa izango da egunean, hilak 17, kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI

► **La edad de la ciruela** delako antzezlan egingo du Muegano Teatro taldeak gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrera da 7 euro alde zurretik eta 8 euro txarteldegian.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Maristak Antzuolan** erakusketa izango da bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Olanan etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00.

ARRASATE

► **Tomas Rubio Roy eskoriatzarren** margo erakusketa dago Harresi aretoan, Iturriotz kalean, astegunetan, 18:00-20:00, eta zapatua eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00, hilaren 20ra bitartean.

BERGARA

► **Elkartasunean, mendia bide** delako argazki erakusketa zabaldu du Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak. Kultura etxean dago, astegunetan 18:00-21:00 orduetartean eta zapatuetan, berri, 12:00-14:00.

ELGETA

► **Elisabet Eguren** margolari eibartarrak bere lanen erakusketa du Espaloia antzokian, hilaren 20ra bitartean. Giza irudiak, natura hilak eta paisaiak margotzen ditu Eguren.

OÑATI

► **Pablo Sanaguano** Euskal Herrian bizi den ekuadortararen *Via Crucis* margo bilduma ikusteko modua dago kultura etxean hilaren 22ra bitartean, aste osoan, 18:30-20:30 orduetartean. Oñatiko Parrokiako Misio Taldeak antolatu du.



► ERAKUSKETA

LANDA EREMURAKO TEKNOLOGIA BERRIEN GAINEKO ARETOA

Sarekide: landa eremuan, aro digital eta teknologiko berria izenburuarekin, teknologia berrien gaineko informazioa hedatu eta erabiltzaileak horretarako prestatu gura dituen erakusketa dago Oñatin. Mendingo Toki Ekintza Taldeak antolatzen du, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Debagoiengan, Oñati aukeratu dute berau ipintzeko. Informazioa jaso eta zenbait motatako aplikazioak eta tresnak probatzeko parada dago. Komunikatzeko era berriak, teletrebakuntza, telelana, informazioa, negozioak, etxeko segurtasuna, aisialdia... arlo horien gainean sentsibilizatu gura dituzte erabiltzaileak. Batez ere, landa gunetako emakume, adineko eta elkarteak; eta nekazari, abeltzain eta artisauei dago zuzenduta.


Non: Oñatin, Olakua dorretxean. **Noiz:** martxoaren 21era bitartean. **Ordua:** astegunetan, 09:30-13:30 eta 15:30-18:30.

AIPAGARRI

Tomas Rubio 'Roy'

ESKORIATZA


Arrasateko Harresi aretoan berak margotutako olioien erakusketa jarri du Tomas Rubio artista eskoriatzarrak. Margo gehienetan paisaiak ikusten dira, horietako asko, gainera, Debagoiene-ko paisaiak dira. *Roy*-ren margo erakusketa hilaren 20ra arte erongo da zabalik.



Jose Luis Ezkurra

ARRASATE


Berak ere ez daki ziur zenbat urte egin dituen Mondrako presidente, baina 17-18 urte inguru izango direla uste du. Utzi egin dio orain karguari; Ezkurra eta baita zuzendaritza osoak ere. Orain, hilabeteko epea jarri dute zuzendaritza talde berria osatzeko hautagai berriak aurkezteko.



Imanol Pildain

ANTZUOLA

Imanol Pildain antzuolarrak eta Esteban Lazkano bergararrak parte hartu zuten Saharako Maratoian, otsailaren 28an. Kirola egiteaz gain, Saharako egoera gertutik ezagutzeko aukera izan dute. Haiekin batera, beste hamar euskaldun izan ziren sahararren kanpamenduetan.



Miriau eta **Mikel** arrasatearrak otsailaren 4an ezkondu ziren Arrasateko udaletxean. Ezkonbidaia urtarrilean egin zuten, Argentinara, eta ezkon agurra, berriz, otsailaren 19an egin zuten lagunekin batera. Koadrilakoen partetik, zorionak eta urte askotarako!

HILDAKOAK

Felix Igartua Igartza. Oñatin, martxoaren 2an. 88 urte.
Agustin Egaña Calles. Oñatin, martxoaren 3an. 94 urte.
Eloy Barrio Acedo. Arrasaten, martxoaren 3an. 49 urte.
Isabel Orbea Arizabalaga. Arrasaten, martxoaren 3an. 91 urte.
Aurea Hernandez Muñoz. Bergaran, martxoaren 3an. 72 urte.
Irene Astobitza Ugarritza. Gatzagan, martxoaren 4an. 82 urte.
Ana Mari Agirre Arenatza. Bergaran, martxoaren 5ean. 72 urte.
Anjeles Eguren Urkiola. Bergaran, martxoaren 6an. 79 urte.
Victoriana Portalo Gomez. Arrasaten, martxoaren 6an. 82 urte.
Maritxu Otaegi Albisua. Bergaran, martxoaren 7an. 89 urte.
Ines Ibarondo Urtzelai. Oñatin, martxoaren 8an. 94 urte.
Jabier Olalde Igartua. Oñatin, martxoaren 8an. 59 urte.

ESKELA

Jabier Olalde Igartua

Oñatin hil zen 2005eko martxoaren 8an, 59 urte zituela.

Beti jarraituko duzu gure bihotzean.



Gaztelondoko ilobak.
Oñatin, 2005eko martxoaren 11n.

URTEURRENA

Modesta Gabilondo Legorburu

Modesto Leteren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 13an, 11:30etan, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juan Jose Garmendia Berezibar

Yanyo

VI. urteurrena

Gogorra izango da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu, ez, ahaztuko.




Zure lagunak.
Arrasaten, 2005eko martxoaren 11n.

URTEURRENA

Karlos Etxaniz Etxeberria

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 13an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Luisa Torres Ontilluelo

Sebastian Fernandezaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 13an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juan Alkorta Larrea

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 13an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Manuela Beitia Maiztegi

Paco (*Kantina*) Altunaren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren Parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Mikel Elortza Colinas

Seigarren urteurreneko meza eguaztenean, martxoaren 16an, 20:00etan, Oñatiko Bidaurreta monasterioan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jabier Zubia Ortueta

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren Parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Ana Mari Agirre Arenatza

Donostian hil zen 2005eko martxoaren 5ean, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko martxoaren 11n.

IRAGARPENA

ZAPATUA, 12 / Max.: 13° / Min.: 1°/



Goizean zehar zerua hodei gutxirekin egongo da. Arratsaldean, berriz, hodeitsu. Haizea norabide aldakorrekoa izango da, nahiko ahula eta tarte biziekin. Temperatura maximoa eta minimoa ez dira askorik aldatuko. Araban izozte ahulak izango dira.

DOMEKA, 13 / Max.: 13° / Min.: 4°/



Zerua hodeitsu egongo da, lehen eta azken orduetan, batez ere. Edonola ere, egunean zehar ostarteak zabalduko dira. Norabide aldakorrek haize ahula ibiliko da, tarte biziekin. Temperatura minimoa gutxi igoko da eta maximoak berdin jarraituko du.

IZOTZA

Temperatura hotzeko fenomeno

Egoera trinko kristalduan dagoen ura da izotza. Fenomenu atmosferiko hori airearen temperatura zero azpitik jaitzen denean gertatzen da; batez ere, zerua oskarbi dugunean.

Giroa hoztearen ondorioz kristalezko masa bat osatuz trinkotzen den ura da izotza. Ura, atmosferako presio normalean, zero gradutan izozten da. Izotzaren dentsitatea, 0,916 gramo/zentimetro kubiko, urarena baino txikiagoa da. Horren arrazoia zera da: oxigeno atomo bakoitza, bere molekulako bi hidrogeno atomekin lotuta egoteaz gain, beste molekula bateko bi hidrogeno atomekin lotzen dela. Eta ondorioz, urarena baino egitura irekiagoa osatzen duela. Hortaz, ura, izotz bihurtzean, bolumenez handitzen da, gainerako gaiak ez bezala.

Izotzaren beste bitxikeria bat da atmosferaren konposizioa eta klimaren ezaugarriak gordetzen dituela. Izotzaren ikerketak erakutsi du, besteak beste, atmosferan dagoen CO2 kantitatearen eta temperaturaren arteko lotura estua dela.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:





www.euskalmet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Gauzaez		*Deitura		Zelan
	Akuilu		Etenaldi		
	Iratze				
	*Izena				
Higuinezko aldi	Baranda babesgarri				
Arabako herria	Bular				
Futboleant, tanto		Erbioa			Era larrian
Aita santuaren agiria		Gogor			
Erlijo-irudi			Aluminioa		Area
Nafarroako mendia			Olgatzea		Urrearen ikurra
		Argi			
		Lehor			
Lehen bokala	Ziur				Bat
Azaleko adiskide	Gipuzkoako herria				Iridioaren ikurra
Toka, du		Ditik			
Miau egiten duena		50			

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



BERNARD TAPIE

Justizia administrazioa nonahi dabil mantso, geldo eta oker. Ondorio hori atera daiteke behintzat munduko prentsa irakurritz gero.

Parisko epaitegi hau ere jendez gainezka dago, denak isilik, beren txanda noiz iritsiko zain.

Halako batean, denen harridurarako, Bernard Tapie azaldu da. Han dagoen jende pilo ikusita-koan, epai-gela zaintzen ari diren polizietako batengana inguratu da eta:

- Aizu, ezin al didazu txanda aurreratu?...

Poliziak, begitartea okertu diola ikusterakoan:

- Autoa bigarren ilaran aparkatu dut eta!

MIGELIKO LIZARRAKO AZOKAN

Migeliko Lizarran egin ohi den ganadu azokarik garrantzitsuenara joan da. Abereak ikusten ari dela honako hau galdetu dio abeltzain bati:

- Aizu, begira eta begira ari naiz eta ez dut ulertzen. Esango al zenidake behi honek zergatik ez duen adarrik?

- Presidente jauna. Badira adarrik gabe jaitzen diren behiak eta baita adarrak harkaitzen kontra puskatutakoak ere.

- Bitxia da. Eta honi zer gertatu zaio?


- Beno, hau..., ez...

- Aizu, baina esango al didazu behingoz ze kristo gertatu zaion behi honi adarrik izan ez dezan?

- Ezer ez, presidente jauna. Behi hau zaldia baita!

SOLUZIOAK

I	R	V	L	U	V	I	M
K	I	K	D	I	K	D	K
I	E	R	E	V	A	E	L
R	G	E	S	E	A	V	A
R	L	A	K	O	N	O	U
A	O	N	O	K	I	K	I
L	A	D	A	L	U	B	A
R	E	L	O	G	O	G	O
A	I	O	I	G	I	Z	I
L	E	L	K	A	R	H	H
O	G	A	R	O	G	A	R
N	E	Z	T	E	N	E	N
P	E	E	E	E	E	E	E



Martxoaren 14a: 035 zozketa

Harpidedunen
txokoa

Sariak astero!

Astlehenean, martxoak 14, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Martxoaren 14ko sariak



- Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**.
- Martxoaren 18an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **PEREZ Y FERNANDEZ** antzerkirako bi sari (saridun bakoitzarendako bi).
- BEKE (Begarako Emakume taldeak) antolatuta martxoaren 18an Jam aretoan **AMPARANOIA** taldearen kontzerturako, lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi)

EIBAR-TENERIFE

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)



BALDINTZAK

- *Astleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astlehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa

034
zozketa

saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta. (Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat)

- Itziar Urrizalki Azpiroz (Aretxabaleta)
- Emilio Acebo Cañizo (Bergara)

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Regina Eraña Iturricastillo (Aretxabaleta)
- Leandro Zaloña Leanizbarrutia (Aretxabaleta)



'Ilunpean'
EGUBAKOITZA 11 / 21:00 eta 22:30



'Marrazki Bizidunak'
ASTEBURUA / * ikus beheko taula



'Rallysprinta'
EGUAZTENA 16 / 21:30 eta 23:00



'Korrika 14'
EGUENA 17 / 21:30 eta 23:00

Aralar alderdiko buru Patxi Zabaletari elkarrizketa

Politika alorrean egindako lanagatik egin da batez ere ezagun Patxi Zabaleta nafarra. *Ilunpean* saioan, baina, Oihana Elortza kazetariak politikatik kanpo bestelako galderak ere egingo dizkio Aralarko koordinatzaile orokorrari.

'Altxorraren uhartea' filma zapatuan eta domekan

Jim gazteak aita galdu du. Ondorioz, amaren laguntzarekin *Benbow almiranteak* utzitako ostatuaren ardura hartuko du. Marinela ugarik hartzen dute ostatu bertan. Horieta batek altxor bat aurkitzeko mapa ekarriko du.

Gabiriako VII. rallysprinta eskainiko du GOITBk

Zapatuan egingo dute Gabirian VII. rallysprinta. Euskal Herri mailako txapelketarako puntuagarria izango da proba. Eta, noski, inguruko auto gidaririk onenak izango dira lehian. Lapurpena ikusi gura baduzue, ez galdu eguazteneko saioa.

Korrika 14 ekitaldiaren gaineko saioa berezia

Martxoaren 16an gerturatuko da Korrika 14 Debagoienara. GOITBk hurrengo egunean, hilaren 17an eskainiko dizue ekitaldiaren laburpena. Martxoaren 15ean, berriz, 2003ko Korrika izango duzue ikusgai.

TELEBERRIAK

'CQC' saioan eduki sexistak emititu dituztela salatu dute

Berdintasunaren aldeko politiken idazkari orokor Soledad Murillok zera salatu du: *Caiga quien Caiga*-k joan den barikuan emititu zuen saioan, emakumearen gaineko irudi sexistak erakutsi zituela. Arrazoi berarengatik, Rosa Regas idazleak eta Liburutegi Nazionalako zuzendariak *CQC* ez ikusteko gomendatu du. T5ek barkamena eskatu du eta argitu du *CQC*-k ironia adimenduna lantzen duela.

TVEk ez du 'Operación Triunfo' emitituko

OT-ren beste denboraldi bat ez emititzeko arrazoia da saio hori egiten duen produkzio-etxearen asmo ekonomikoak garestiegiak direla. Hiru denboraldira kontratua nahi dute.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Martxoaren 11tik 17ra



EGUBAKOITZA 11	ZAPATUA 12	DOMEKA 13	ASTELEHENA 14	MARTITZENA 15	EGUAZTENA 16	EGUENA 17
13:50 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Behazulo 15:00 Auñamendietan Berriak Aurrerapena 15:30 Klip@ 15:45 Emisio hasiera Gaurkoak 19:35 Klip@ 19:45 Berriak 20:00 Marrazki bizidunak 21:00 Ilunpean: Patxi Zabaleta 21:30 Gure lanbide zaharrak Berriak 22:00 Ilunpean 22:30 Gure lanbide zaharrak 23:00 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	11:05 Behazulo 11:35 Debarri: Leintz Gatzaga 12:35 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra Lazkao Txiki 13:40 Marrazki bizidunak: Lazkao Txiki 14:00 Auñamendietan 14:30 Filma: Altxorraren uhartea 15:25 Ilunpean: Patxi Zabaleta 16:00 Debarri 17:00 Bi eta bat 17:30 Klip@ 17:45 Behazulo 18:15 Danbaka bira: Dolce Vita 19:15 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 20:00 Emisio amaiera	11:00 Filma: Altxorraren uhartea 12:00 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 13:10 Marrazki bizidunak: Lazkao Txiki 13:25 Ilunpean Patxi Zabaleta 13:55 Auñamendietan: Mendi bizikleta sobrepuertoan 14:30 Gure lanbide zaharrak 15:00 Filma 15:50 Danbaka bira: Dolce Vita 16:20 Debarri 17:20 Bi eta bat 17:50 Marrazki bizidunak 18:45 Ilunpean 19:15 Klip@ 19:30 Debarri 20:30 Auñamendietan 21:00 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Ilunpean 15:00 Gure lanbide zaharrak Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 19:45 Gaurkoak 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak 21:00 Korrika 13 2003ko Korrika 21:30 Korrika 14 Korrika 14ko aurkezpen erreportajea 22:00 Berriak 22:30 Korrika 13 23:00 Korrika 14 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Harmailatik Auñamendietan: Russelen obsesioa 15:30 Berriak 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak 21:00 Korrika 13 2003ko Korrika 21:30 Korrika 14 Korrika 14ko aurkezpen erreportajea 22:00 Berriak 22:30 Korrika 13 23:00 Korrika 14 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: -Fernando Amezketarra Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Korrika 13 15:00 Korrika 14 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 19:45 Gaurkoak 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak 21:00 Bi eta bat 21:30 Rallysprinta: Gabiriako VII. Rallysprinta 22:00 Berriak 22:30 Bi eta bat 23:00 Rallysprinta 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Bi eta bat 15:00 Rallysprinta 15:30 Berriak 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 21:00 Behazulo 21:30 Korrika 14: Korrika 14k Debagoienan utzitako irudiak 22:00 Berriak 22:30 Behazulo 23:00 Korrika 14 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera
21:00 Ilunpean	16:00 Debarri	11:00 Filma	21:30 Auñamendietan	21:00 Korrika 13	21:30 Rallysprinta	21:30 Korrika 14

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



Debagoieneko txirrindularitza

Txirrindularitzaren gaineko GEHIGARRIA martxoaren 14an
Astelohenerako Goienkarian

Txirrindularien argazkiak • Erreportajeak • Iritziak

Astelohenerako Goienkaria | GEHIGARRIAK | Gorde egingo dituzu.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelohenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENERO
Goienkaria
astelohenean, aste bukaera osoa

www.sexologiazerbitzua.com/sexmetraia

SEX

metraia

Arrasateko Sexologia Zerbitzuko
1. Laburmetrai
Lehiaketa



SEX 2005



Sexmetraia 2005

Arrasateko Udalako Sexologia Zerbitzuak SEXMETRAIA 2005 laburmetraien lehiaketa jarri du martxan. Laburmetraiek sexualitate anitzen erakusleho bilakatuz, gizon eta emakume bizitzeko errealitate ezberdinak gizarteratu eta goraiatu nahi du SEXMETRAIaren bitartez Sexologia Zerbitzuak.

SEXMETRAIAKO IRABAZLEA: 1500 €

SEXOLOGIA saria: 600 €

SEXOLOGIA EUSKARAZ saria: 300 €



Arrasateko Sexologia Zerbitzua
Garibai etxea, goia | 20500 Arrasate | 943 798 010
sexologiazerbitzua@arrasate-mondragon.net
www.sexologiazerbitzua.com



ARRASATEKO UDALA

take / scene / roll / movie / sound

take / scene / roll / movie / sound

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Eugenio Ramos/ Medikuntza txinatarra egiten du

Zer ikastaro eman behar duzu bihar, zapatua, Donostian? Medikuntza txinatarra oso zaharra da, eta zabalkunde garaian ekialdeko beste herrietara ere iritsi zen; esaterako, Japoniara. Herrialde horiek arte terapeutikoak sortu zituzten Txinakoan oinarrituta.

Japoniakoa meridianoe-tan oinarritzen da, energia eta odola doazen bideetan. Arte hori erakutsiko dut.

Nola egiten da Japoniako arte hori?

Haiek ere orratzak erabiltzen dituzte, baina askoz

txikiagoak dira eta ez dira Txinakoak beste sartzen barrura. Arte horrek egiten duena da energiaren eta odolaren bidean orratz txiki horiek sartuta gizakiaren gorputza orekatu eta armonian jarri.

Noiz hasi zinen zu medikuntza hori egiten?

Duela 24 urte.

Zerk egiten du antibiotikoen lana?

Medikuntza txinatarra ez da akupuntura bakarrik. Batetik orratzak daude, bai, baina landareak ere asko erabiltzen dira. Artemisa, esaterako, energia indartze-

ko dagoen landarerek onena da, batez ere urtaroak eragiten dituen gaixotasunak sendatzeko. Bestalde, masajeek ere euren funtzioa dute.

Medikuntza alternatiboan baino konfiantza handiagoa du jendeak ofizialean?

Jendeak mitifikatu egiten du ofiziala ez den beste edozein medikuntza.

Txinatarra ere, adibidez, orratzekin lotzen du, akupunturarekin. Beldur hori eta duten konfiantzarik eza kendu behar zaio jendeari.

Nolakoa da medikuntza txinatarra?

Eskuekin egiten den medikuntza da, medikuntza artisaua. Gorputza eta osasuna beste era batera ulertzen ditu eta gorputza beste modu batean tratatzen du.

Ze alde du medikuntza ofizialarekin?

Medikuntza ofiziala medikuntza teknologikoa da. Mendebaldeko bizitzeko dugun erari, dugun bizi-

moduari, egokituta dago. Presaka bizi gara, ezin gara la gaixotu pentsatzen dugu eta ahalik eta lasterren osatu nahi dugu beti.

Medizina naturalekin ez da hori gertatzen. Haiek denbora behar dute euren lana egiteko eta esparru guztietako osasuna zaintzen eta hobetzen dute: gorputzekoa, osasun emozionala eta espirituala, adibidez.

Zenbat lagun joango dira ikastaro horretara?

Dozena bat inguru, gutxi gorabehera, baina ziur ez dakit. Interes handia piztu du ikastaroak, eta jende askok deitu dit. Dena dela, kopurua gutxienekoa da. Datorren jendea ikasteko gogoarekin datorrela da garrantzitsua, eta ni pozik nago nik ikasitakoa eurei erakusteagatik.

Eskualdean eman dituzte ikastaroak?

Bai. Arrasaten bertan Donostiako ikastaro bera eman dut. Talde bi ditut.



“Japoniako arteak Txinakoak baino orratz txikiagoak erabiltzen ditu”

“Medikuntza txinatarra ez da akupuntura bakarrik; orratzez gain, landareen teknikak eta masajeek euren funtzioa dute”

“Ofizialari emaitza azkarrak eskatzen diogu; naturalak denbora behar du”

► Aretxabaleta / 48 urte / Arrasaten du kontsulta

PIPERRAUTSA

Blogari

Lagun bati entzun berri diot aste betean pasatu zela *blog* hitza ez ezagutzetik alde guztietan entzutera. Hark iturri zuen Joxe Aranzabalen liburua eta honen aurkezpenak hedabideetan izan duen oihartzuna. Agian zuk beste iturri batetik jaso duzu berba magikoaren berri. Gerta dakizuke oraindik aro kretazikoan egotea, blog berba ezagutu gabe, baina horrek ez dizu askorik iraungo. AEBetan iaz barbarik sonatuena izan omen zen, Irak-eta baino areago, eta dagoeneko sukarrak jo gaitu gu ere.

Bloga da tresna bat sarean jartzeko ugazabak nahi duena, testuak, irudiak, soinuak, loturak... Eta edonor izan daiteke blog baten ugazaba, berdin pertsona edo talde, zu edo ni. Beno, ni dagoeneko hasi naiz blogari, asteon. Izan ere, blogintza iritsi da *goiena.net* atarira, eta hor ausartu gara batzuk lehen urratsak egitera.

Nire blogak zutabe honen izen bera du, piperrautsa, eta hemengo antzera arituko naiz. Hori bai, bi pizgarri handirekin. Batetik, arituko naiz formaz libreago, hemen lotuta bainago neurri eta maiztasun jakinetara. Eta bestetik, jaso ahal izango ditut zuen iritziak hemen ez bezala. Zutabea abiatu nuenean, eskaini nuen helbide bat, baina apenas erabili duzue. Orain samur daukazue kontua: sartu blogean eta erantzun. Bota iritziak edo proposamenak. Han sortzen den trukeak izango du isla gero hemen, paperezko *Piperrautsa*-n.

MIKEL IRIZAR



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
 OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxa: 943 78 15 51

